

## Def Con Dos taldea

Jam aretoan izan zen zapatuan

KULTURA, 20-21



## Preferente mailako guztiek puntuatu dute

Mondrak eta Bergarak irabazi egin dute; Aloñak eta UDAk, berdindu

KIROLA, 12

## Andoni Egaña

Euskararen kalitateaz jardun du

KULTURA, 24



# ASTELEHENKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko apirilaren 4a • 2. urtea • 51. zenbakia • 0,90 euro

## Oñatiko gazteek bizikleta txikiteoa egin zuten zapatuan

*Gaur hasten den Euskal Herriko Itzulia Oñatin amaituko da egubakoitzean eta herria girotu nahi izan zuten*

Oñatiko Gazte Asanbladak bizikleta txikiteoa egin zuen joan zen zapatuan, herriko 20 bat tabernetan zehar. 50 bat gaztek parte hartu zuen ekimenean eta hilaren 8an Oñatin amaituko den Euskal Herriko Itzuliaren aitzakiaz asmatu zuten bai eta "gazteok herrian gauzak egiten ditugula eta hemen gaudela erakusteko" ere, adierazi zigitenez. **2-3**

**GAZTEEN EKIMENEZ**  
Gazte Asanbladaren helburua gazteek herrian ekintzak egiten dituztela erakustea zen

**KULTURA ETXEAN**  
50 bat lagun ibili ziren bizikletan. Egubakoitzean 30 bat elkartzen dira kultura etxean



M.D.

### ALDARRIKAPENA ETA JAIA BIZIKLETA GAINEAN

"Herri bat Gaztetxe bat" aldarrikapena egin zuten joan zen zapatuan Oñatiko gazteek. Bizikleta txikiteoa antolatu zuen Oñatiko Gazte Asanbladak eta eguerdian ekin zioten ibilbideari, mapa eta guzti, herriko tabernetan zehar. Gustura geratu ziren gazteak parte hartzea uste baino handiagoa izan zela eta.

## Amaia Arrieta arrasatearra aske

*Atzo eguerdian ongi etorri beroa egin zioten*

Maiatzean lau urte beteko zituzkeen Alcalan prebentziozko presoaldian, legeak ezartzen duen gehiengo. Haika-Segi-Jarrai auziko inputatuetako bat da eta bariku iluntzean askatu zuten, beste bi gazterekin batera. Ongi etorri beroa egin zioten atzo herrian. Gaur Madrilen da berriz, auziak jarraitu egiten du-eta. **5**



AINZANE AGIRRE

## Aralarrek laga egin du Elgetan Udal gobernua

"EAJ-EAk guk aurkeztutako udal funtzionamenduaren gaineko mozioa onartu ez duelako, gobernua ulertzeko modu desberdina dugulako eta gureganako errespeturik ez dutelako erakutsi" laga dute Gobernu Batzordea. Hala ere, Ogasun, Kultura eta Hezkuntza batzordeburu izaten jarraituko dute, oraingoan. **5**

## BARRUAN, EUSKAL HERRIKO ITZULIA 2005 GEHIGARRIA



FordFocus berria. Kalitatea bete-betean.



**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Gozatzeko pentsatuak, irauteko eginak



# GEUREAN

- Bi edizioko 'Goienkaria' egubakoitz honetatik aurrera zuen etxeetan | 4
- Gaur, astelehena, itxiko dute Artekaleara ibilgailuendako Bergaran | 4



Alfons Martínez  
Lizardukoa  
antropologoarekin  
euskal zibilizazioaz  
jardun dugu | 6

**BIZIKLETAN ETA TXIKITEOAN**



Herriko plazan bazkaria egin zuten gazteek, bizikletaz inguratuta. Ogitaratekoak eta sagardoa; menu ederra.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

**BIZIKLETA TXIKITEOA** | OÑATIKO GAZTE ASANBLADAKO 50 BAT LAGUN ARITU ZIREN BIZIKLETAN EUSKAL HERRIKO ITZULIRAKO GIROTZEN

## Bizikletak hartu eta herri-txikiteoa antolatu zuten Oñatiko gazteek

*Egubakoitzean Oñatin amaituko da Euskal Herriko Itzulia eta herriko Gazte Asanbladak girotze lanari ekin zion zapatuan: bizikleta txikiteoa egin zuten gazteek.*

Marijo Deogracias

Triki-poteoa egin izan dute askotan herrietan, zapatuan Oñatin, bizikleta txikiteoa egin zuten Gazte Asanbladako lagunek. 50 bat gazte elkartu ziren eguerdian Oñatiko hogeitabi tabernatan zehar, bizikletan, ibilbidea egiteko. Bazkalostean izan ginen euren herriko plazan, eguzkipean.

Banaka barik taldean aritzen direla eta horregatik ez dutela

banaka erantzun nahi; beraz, taldean aritzea proposatu genien eta baita kasu egin ere. Guztiek zuten zerbait esateko: “gazteok elkar ezagutzeko antolatu dugu bizikleta txikiteoa”, “herriko gazteak ere aritzen garela erakusteko”, “gure artean hartu-emanak sendotzeko”, “gazteek elkarrekin jarduteko”... zioten. Jarduteko ze, elkartzeko lekurik ez dute. Gaur egun, kultura etxeko erabilera publikoko gelak erabil-

tzen dituzte euren batzarrak egiteko. Antza, Gaztelekuan elkartzen hasi ziren, baina Gazte Asanblada bezala sortzeko izan zuten topalekuan batzeari laga diote orain hilabete batzuk. “Udalak Gaztelekuaren erabilera mugatu egin du eta guk ez dugu gure egitekoa inork mugatu dezan gura”, zioen batek. “Horregatik negu gordinean udaletxepean egin izan ditugu batzarrak”, azaldu zigun beste batek. “Baina azkeneko hilabetean kultura etxeko gelatari-ko bat eskatzen dugu eta han egin izan ditugu batzarrak”, azaldu zigun beste oñatiar gazte batek. “Batzarrak irekiak dira eta ahalik eta gazte gehien etortzea gura dugu”.

Bihar hasten den Euskal Herriko Itzulia Oñatin amaituko da egubakoitzean, hilak 8, eta

horren aitzakiaz antolatu zuten bizikleta txikiteoa zapatuan Oñatiko Gazte Asanbladakoek. Herriko hogeitabi taberna sartu zituzten ibilbidean eta mapa eta guz-

**Oñatiko Gazte Asanbladak antolatu zuten bizikleta txikiteoa**

**Giro bikaina jarri zuten herrian 50 bat gaztek zapatuan, bizikletan**

ti eguerditik ibili ziren herrian gora eta behera. Ibilbidea ondo baino hobeto antolatu zuten: “Ez ditugu tabernak errenkadan jarri gure mapan. Azken batean herri-erretre gu ikuste nahi izan dugu eta hori dela eta, taberna batetik bestera bizikletan ibilbidetxoa egiteko aukera ematen duen bidea antolatu dugu” azaldu ziguten gazteek.

**PLAZAN BAZKARIA**

Herriko plazan, eguzkipean, bazkaldu zuten 15:00ak aldera eta ordurako bost tabernatan egonak ziren. “Tabernarietako ere oso ondo hartu gaituzte; olibak ere atera dizkigute” esan ziguten oñatiarrek. Gurekin egon ostean ekin zioten berriz ibilbideari, globoz apaindutako bizikletetan eta txilibituaz abisua emanez.

BIZIKLETAN ETA TXIKITEOAN

• GIRO BIKAINEN ARITU ZIREN OÑATIKO GAZTE ASANBLADAKO LAGUNAK



**HERRIA ANIMATZEKO ASMOZ.** Kultura etxean batzen dira egubakoitzetan Oñatiko Gazte Asanbladako kideak. 30 bat lagun elkartu ohi dira, baina zapatuan 50 bat animatu ziren Euskal Herriko Itzuliaren aitzakiaz, bizikleta txikiteora, herrian gazteek ere ekintza orijinalak antolatzen dituztela erakusteko. Mapa eta guzti, bizikletak koloretako puxikaz apainduta, aritu ziren eguerditik txikiteoan.



**BAZKALOSTEA.** Berrogeita hamar bat gazte animatu ziren bizikleta txikiteoan aritzera zapatuan. Bazkaria herriko plazan egin zuten: ogitartekoak eta sagardoa. Ostean, aurrez prestatutako taberna ibilbideari jaramon eginez, bizikletak hartu eta txikiteoan jarraitu zuten. Pozik zeuden gazte guztiak: "Lagun asko animatu da eta eguraldia ere alde izan dugu" esan ziguten.

• ZE ASMOREKIN ANTOLATU DUZUE EKINTZA?



SAIOA, IZARO ETA JONE | OÑATI

"Herritarrak hemen gaudela konturatu daitezten antolatu dugu. Herrian esperientzia berria da hau eta aitortu behar dugu esperientzia oso polita izan dela" azaldu zigun hiruko taldeak. "Gazteen artean harremanak zabaltzeko ere bada ekimena, horixe gura baitugu: herriko gazteak elkar ezagutzea eta elkarrekin aritzea".



TOMAS, AITOR, JONE, ITSASO, IDOIA, MADDI, GARAZI ETA IBAN | OÑATI

Eguerdian elkartu zirela azaldu zigun lagun talde honek. Errutinatik ateratzeko asmoz antolatu zutela ekintza eta "Euskal Herriko Itzulia Oñatin amaitzen denez, herria girotzen hasteko". Herriko gazteen artean komunikazio gutxi dagoela ere esan ziguten eta horrelako ekintzekin elkartzeko guneak sortu nahi dituztela.



JULEN, MIKEL ETA ASIER | OÑATI

Ondo baino hobeto pasatzen ari zirela aitortu ziguten Julen, Mikel eta Asierrek edo 'Letek', 'Umek' eta 'Axik', horrela deitzen dietela esan ziguten eta. "Uste baino hobeto ateratu da, jende asko animatu da". Elkartu zirenean koadrilaka dirua jarri zutela azaldu ziguten "eta gero antolatutako mapari kasu egitera".

# GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN!!

GURE ERRONKA:  
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN  
LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN

Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko itxorian  
aldaketa nagusia biziko du aurten:  
lokal berri bat eraikitzen doa  
eta zure laguntza baitezpadakoa du.

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herritarren sustengaren jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel: 15999 02277 00050514940 64

-Hego Euskal Herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071330

  
Gure Lokala

Goizetik arrats... Beti euskaraz  
**GURE IRRATIA**  
Zure Irratia 106.6 - 90.5 FM

## 0000 km

Mondeo  
C-Max  
Fiesta

Hau  
da  
aukera!

  
MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE  
www.mugarri.es

  
Ford

gozatzeko pentsatuak  
irauteko eginak

## Bi edizioko 'Goienkaria', bariku honetatik aurrera

*'Goienkaria' eraldatuta agertuko zaigu datorren egubakoitzean. Aurrerantzean bi edizio ezberdin izango ditu, eta ez lau*

### Asteleheneko Goienkaria

Aldaketa nagusiak dira Arrasate eta Aretxabaletako herri edizioak bat egingo dutela eta, bestalde, Bergara aldeko edizioa Oñatin ere banatuko dela.

Honenbestez, Leintz aldean, hau da, Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagan, *Goienkaria*-rekin batera beste 24 orriko edizioa banatuko da, eta herri bakoitzak bere herri aldizkaria edo bere tartea izango du. Azpimarratzekoa da Leintz Gatzagan, *Urlatik* izene-

ko aldizkarian jasoko dituztela herriko berriak. Guztira 48 orriko aldizkaria jasoko dute herri horietakoek.

Bestalde, Bergara, Antzuola, Elgeta eta Oñatin, *Goienkaria*-rekin batera banatuko da beste 16 orriko edizio bat, eta hemen ere herri bakoitzak bere tartea izango du, baita Oñatik ere. Hori da beste berritasun nagusietako bat: hain justu ere, Oñatik ere bere orria izango duela, astero herriko albisteak jasoko dituen. Herri hauetan, 40 orriko aldizkaria jasoko dute.

### ALDAKETAREN ARRAZOIAK

Goienako prentsa atalean, hainbat aldaketa aurreikusten dira datorren urtera begira, barruko beharrek eta kanpoko faktoreek eraginda. Batetik, ASTELEHENKO GOIENKARIAren sorrerak ekoizpena birplanteatzea ekarri du; bestetik, errekurtsoak optimizatu eta diru kontuak orkatu beharrek ekarri du, oraingoz, egubakoitzero lau tirada ezberdin egin beharrean bi tirada egitea.

Datorren urtera begira, bestalde, aztertzen dihardu Goienako prentsa atalak egubakoitzetan tirada edo edizio bakarreko aldizkaria egitea, Debagoieneko herri guztietarako berdina izango dena, edo eguneroko aldizkarira jauzi egitea.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Herritarrek ez dute gunea errespetatzen Udalaren iritziz.

## Ibilgailuak garbitzeko Uribarrin dagoen gunea egokitu egingo dute

*Gune horretako instalazioak Sailkatutako Jardueren araudira egokitzea nahi du Arrasateko Udalak, besteak beste*

### M.B.

Arrasateko Udalak egokitu egingo du Uribarri auzoan ibilgailuak garbitzeko eta mantentzeko dagoen gunea. Proiektua egiteko arrazoia bi dira udaleko ordezkarien esanetan: batetik, gune horretako instalazioak Sailkatutako Jardueren araudira egokitzea; bestetik, laster hasiko dira Aramaio ibaiako kolektorea egiteko lanak, eta ibilbideak ukitu egiten du gune hori. Hala, Udalaren asmoa da bi lanok batera egitea.

### PROIEKTUAK LAU GUNETAN BANATZEN DU EREMUA

Udaleko ordezkarien arabera, gaur egun herritarrek ez dute garbiketa gunea errespetatzen;

edonon garbitzen dute ibilgailua. Eta horrez gain, hondakin guztiek tratamendu bera jasotzen dute; ez dira hondakin arriskutsuak bereizten (olioak, filtroak, freno likidoak...). Gainera, nahi gabeko olio-isuriak ere izaten dira.

Horren aurrean, egokitze proiektuak lau gunetan bereizten du eremua: aparkalekua, garbiketa gunea, ibilgailuen mantentze gunea eta hondakinak jasotzeko gunea. Bestalde, eremuko ura kontrolatu egingo dute eta ur mota bakoitzak bere tratamendua jasoko du: euri urak zuzenean ibaira botako dira; garbitze guneako urak kolektorera joango dira eta gainerakoak, kutsatuta egongo direnez, garbiketa sistema batera bideratuko dituzte.

### LEINTZ ALDEKO EDIZIOA | 48 orrialde



DEBAGOIENA  
24 orrialde



ARRASATE  
12 orrialde



ARETXABAL.  
4 orrialde



ESKORIATZA  
2 orrialde



ARAMAIO  
2 orrialde



GATZAGA  
Orrialde bat

### BERGARA ALDEKO EDIZIOA | 40 orrialde



DEBAGOIENA  
24 orrialde



BERGARA  
9 orrialde



ANTZUOLA  
2 orrialde



ELGETA  
2 orrialde



OÑATI  
Orrialde bat



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

HAUTESKUNDEAK | ARALARREK EGOITZA INAUGURATU ZUEN ZAPATUAN ELGETAKO SALBATORE KALEAN

# Elgetako Aralarrek gobernutik irten eta batzordeburu izaten segituko du

*Aurrekontuak  
EAJ-EAren  
aldeko botoekin  
onartu ziren  
Elgetan;  
Aralarrek kontra  
bozkatu zuen*

M.D.

Egubakoitzean, udal aurrekontuak onartzeko osoko bilkuran, udal gobernu lagatzeko erabakia hartu zuen Aralarrek. "EAJ-EAk guk aurkeztutako mozioa (udal funtzionamenduari zegokiona) onartu ez duelako, gobernu ulertzeko modu erabat desberdinak ditugulako eta gureganako errespetu minimoa ere ez duelako erakusten, EAJ-EArenkin dugun akordioa bertan behera lagatzen dugu", adierazi zuen Aralarrek. Hala ere, Ogasun, Kultura eta Hezkuntzako batzordeburu izaten jarraituko du Aralarrek, oraingoz. Oxel Erostarbe zinegotziak adierazi duenez, "batzordeburu izaten jarraitu ala ez aztertzen ari gara, hori baita EAJ-EAri interesatzen zaion bakarra: guk eurei lana kentzea".

## AURREKONTU TXIKIAGOA

Udal aurrekontua EAJ-EAren aldeko botoekin onartu egin zen egubakoitzean; Aralarrek kontra bozkatu zuen. Iaz baino aurre-



IBAN ARANTZABAL

Aintzane Ezenarro eta Joseba Azkarraga, Gipuzkoako eta Bizkaiko hautagaiak, aritu ziren ekitaldian, besteak beste.

kontu baxuagoa onartu du Elgetako Udalak. Ia 5 milioi eta erdi euroko aurrekontua da eta horietatik 4 milioi inbertsioak dira. Patxi Basauri alkateak lau inbertsio azpimarratu ditu: Pagatzako industrigunea, Torrealdeko urbanizazioa, Maalako parkea eta pilotalekua berritzekoa.

## ARALARREN EGOITZA

Uberatik Elgetarako igoera bizikletan eta korrika egin ondoren, Elgetako Salbatore kaleko egoitza inauguratu zuten Aralarreko

kideek zapatuan. Oxel Erostarbe aritu zen anfitrioi. Aintzane Ezenarro hauteskundeetarako

**Aralarren Elgetako egoitza irekiera aurretik, euskal selekzioaren aldeko igoera egin zuten Uberatik Elgetara**

Gipuzkoako hautagaia, Joseba Azkarraga Bizkaiko hautagaia eta Patxi Zabaleta Aralarreko koordinatzaile nagusia izan ziren eskualdeko Aralarreko kideekin "Zibil eta zabal" kanpaina aurkeztu. "Ez dago mehatxuendako lekurik euskal gizartean" adierazi zuen Ezenarro, bai eta "datorrena trantsizioko legegintzaldia" dela ere.

Uberatik Elgetara egindako lasterketan azkarrena Juan Martin Elexpuru izan zen; bizikletan igo zen.

## Labur

### Lau urteren buruan aske da Amaia Arrieta

Epaitzeke lau urtez kartzelan izan eta gero, Amaia Arrieta arrasatearra aske geratu zen egubakoitzean Gartzten Garaio eta Egoitz Lopez de la Callerekin batera. Haika-Segi-Jarrai auzian epaitzen ari dira hiru gazteak -beste hainbatekin batera- Espainiako Auzitegi Nazionalan. Eta goizeko saioan, hain zuzen, jakinarazi zieten erabakia. Iluntzean laga zuten aske Amaia Arrieta eta Alkalako atean zituen zain senitartekoak. Herrira, Arrasatera, goizaldean iritsi zen eta ordu txikiak izan arren herritar ugari harrera beroa egin zion. Domekan, berriz, ongi etorria egin zioten beste hainbatek. Horren harira, Amaia Arrietak zein senitartekoek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eskaini dieten guztiei. Gaur, astelehena, Madril da berriz, epaiketak jarraitu egiten duelako.



Arrieta egubakoitzeko harreran.

## Baldintza demokratikorik gabeko kanpainari ez

*Bergarako  
Batasunak  
ilegalizazioak salatu  
zituen zapatu  
eguerdiko  
manifestazioan*

Larraitx Zeberio

Berrogei bat pertsona batu zen zapatu eguerdian *Ilegalizaziorik ez, aski da* lelopean Bergarako Batasunak deituriko manifesta-

ziora. "Hauteskunde kanpaina hasi berria denez", azaldu zuen Jesus Mari Garitanok, "behin eta berriro salatu nahi ditugu Batasunaren eta Aukera Guztien ilegalizazioak. Ibarretxek hauteskunde batzuk jarri ditu martxan, jakinez baldintza demokratikoen ez direla bermatzen".

Garitanok gaineratu zuen EAJ, EA eta EB joko zikina egiten ari direla. "Ez dute egoera behin betiko gainditzeko pausorik ematen". Bergarako Batasunaren iritziz "giltza bertako alder-

dien esku dago, ez Madril". Beste lade batetik, jarritako kartel guztiak desagertu izana salatu zuen Batasunak. "Eguen gauean Ertzaintzak lan txukuna egin zuen. Denak kendu zituen, 30 kartel inguru. Argi dago salbuespen egoeran gaudela".

Hauteskunde hauetan bestelako kanpaina egin beharko dutela adierazi zuten. "Oraindik ez dakigu zer gertatuko den EHAK alderdiaren azken erabakiarekin".



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Manifestariak ilegalizazioak salatu zituzten Bergarako kaleetan.

**M**  
**MEMESA**  
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE  
TEL.: 943 712 425  
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA  
TEL.: 943 712 411  
FAXA: 943 712 004

OÑATE  
TEL.: 943 718 080  
FAXA: 943 718 045

**SEIN**  
grupotalde  
Euskadiko erreferente nagusia  
industria horniduran

Euskal zibilizazioa gai hartuta hitzaldia egin zuen Alfontso Martinez Lizarduikoak Unedeko aretoan. Aranzadi ikastolako ikaslearen aurrean eman zituen azalpenak

zientziaren filosofiako irakasleak. Hizkuntza, genetika eta arkeologian oinarrituta euskal zibilizazioaren gaineko hainbat kontu esan zituen. Horretaz jardun genuen

Martinez Lizarduikoarekin berbetan, baita politikaz ere. Izan ere, iaz hitzaldia egitera etortzekoa zenean atxilotu egin zuten, eta bazuen zeresanik gai horren inguruan ere.

**ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA** | EUSKAL ANTROPOLOGIAN ADITUA

# “Kultura, serio egiten bada, bihur daiteke herri bat eraikitzekeo tresna”

Irati Agirreazaldegia

**Euskal zibilizazioaz jardun zenuen berbetan Bergaran. Zer da euskal zibilizazioa?**

Eremu zabala da, batez ere historiaurrean kokatua, baina garatu dena gaur egunera arte, desagertu gabe, nahiz eta minorizatua izan. Horren ezaugarriak dira Pirinioen inguruko espazio handi bat hartzea; Europaren sorreran garrantzi handia izan zuen migrazio mugimendua; denboran ere luze joan da eremu horren garapena, 30.000 urte inguru; hizkuntza aurre-indoeuroparra izatea; eta mundu sinbolikoa eta ahozko kultura mantentzea. Oro har zibilizazio zaharren ezaugarri asko ditu, nahiz eta gu Europa modernoan bezala bizi. **Eraldaketak izan ditu urtetan euskal zibilizazioak. Zertan nabarmentzen dira aldatetok?**

Nabarmenena espazioaren txikitze prozesua izan da. Hasiaren askoz zabalagoa zen, baina gero inbasioen ondorioz txikituz joan da. Horrekin batera hizkuntzaren gutxitzea ere. Ohiturak ere aldatu egin dira, modernizatu egin gara. Baserrietan telebista sartu zen momentutik ahozko tradizioa galdu egin zen. Gaur egun ez dago ezberdintasunik baserriaren moderno baten eta kaletar baten artean. Baina badira mantendu ditugun elementuak ere. Hizkuntzarena, esaterako, oso berezia da. Zentzu komunitarioa ere mantendu dugu.

**Zuk esandakoa da gure izaera mantenduz modernitatean txer-ta gaitzkeela.**

Potentzia bat izango bagina bestela jokatuko genuke, baina Euskal Herriak aspalditik egiten du datorrena hartu eta asimilatu. Ondoren, bere nortasunaren bidez, irteera ematen dio. Arazoa da euskaldunok gero eta gehiago ghettoa osatzen dugula, eta gutxiegi izanda desagertzeko arriskua dago.

**Europar geratzen den azken herri indigena garela ere esan duzu.**

Europa zaharra sortu zenetik herri guztiak mestizatuak izan dira. Baina badirudi euskaldunok izan garela garai hartako ezaugarriak puruen gorde ditugunak.

**Euskal Herria eremu bereiztu gisa aldarrikatu beharrik ez dagoela diozu. Zergatik?**


Gaur egun, gustatu edo ez gustatu politikak eragina du gauza guztietan, baita mugek ere. Euskal Herriak ez du bereizi beharrik, bere nortasuna baduelako beste gauza askotan. Baina momentuko egoeretara egokitu behar dugunez, une honetan estatu bat izango bagenu gauza batzuk hobeto gordeko genituzke. Beraz, bereizte horri ez diot garrantzi handirik ematen, baina beharbada ez litzaiguke gaizki etorriko.

**Politika aipatu duzu. Nola ikusten duzu egungo egoera politikoa?**

Aukerak baditugu, baina badirudi fase gogor eta luzea amaitzear dela, eta irekitzen ari den fasean bide beretik jarraituko dugula. Beste estatutu bat dator, eta estatutu horrek aurrekoak eman zuena emanez gero, arazo berekin jarraituko dugu. Politikan demokrazia faxistan gaude, herriaren zati garrantzi-

**“Europa modernoan bezala bizi gara, baina zibilizazio zaharren ezaugarri asko ditugu”**

**“Euskal kultura baztertuta dago; beldurra dago euskal kultura defendatzeko”**



Alfontso Martinez Lizarduikoak antropologian oinarrituta euskal zibilizazioaren gaineko hitzaldia eman zuen.

tsu batek ezin du bozkatu. Etsai gehiegi ditugu, batik bat kulturaren munduan. Nafarroan, esaterako, ikusten da euskara nola tratatzen duten; UPNk esan du publikoki euskara desagerrarazi nahi duela. Kultura eta bereziki euskal kultura baztertuta

**“Demokrazia parte-hartzailea behar dugu; hori da herria bizirik mantentzen duena”**

**“Lortu behar dena da pentsamendua eta ideiak ekintzarekin lotzea”**

daude. Beldurra dago euskal kultura defendatzeko. Kultura, benetan eta serio egiten bada, bihur daiteke herri bat eraikitzekeo tresna. Eraikuntza nazionalaz hitz egitean, kultura oinarritzeko da.

**Laster hauteskundeak izango dira. Nola ikusten dituzu?**

Hauteskundeak interesatzen zaizkigu, baina herriaren ordezkagarri den demokrazia baino gehiago demokrazia parte-hartzailea behar dugu. Hori da egunero egiten dena, eta herria bizirik mantentzen duena, baina zaila da. Hala ere, gure herrian badago horretarako tradizioirik. Baina politikarekin desengainua hartu dut, ez da desengainu errea, baina beste egitura eta ideia batzuk sortzeko beharra nabarmen dela uste dut. Egitear diren hauteskundeetan interes asko daude jokoan, ez euskal Herrian bakarrik, Espainian, European eta munduan ere bai. Beraz, gau-

za guztiek dute eragina: egoera ekonomikoa, Europa berria... Horretaz guztiaz hedabideetan agertzen den informazioa baino ez dugu, eta askotan gezurra da. **Politikaren alorretik baino gehiago antropologiaren bidetik ikertu duzu euskal zibilizazioa. Ikerketa horretan jarraituko duenik bada?**

Hori nahi nuke, gazteek lekuko hartu eta euskal historia, musika, antropologia... ikertzea eta transmititzea. Horretarako ikerketak egin, dibulgazio lanak prestatu, hitzaldiak eman, idatzi... Lanak kolektiboak izan behar du, ikertu nahi bada nahi adina lan badago eta. Gure belaunaldiko jendeak adin batetik aurrera ez du arriskurik nahi. Beraz, gaztetxeak eta gazte mugimenduak garrantzitsuak dira lan hori aurrera eramateko. Lortu behar dena da pentsamendua eta ideiak ekintzarekin lotzea. Euskal zibilizazioak aurrera egingo badu gazteen lana beharrezkoa da.

## Albiste izango da

BERGARA | 19:30EAN MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN

### Iñaki Egañak gerra zibila Euskal Herrian izango du hizpide bihar

Udal Agiritegiak antolatu duen Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi sortaren barruan, *1936ko gerra zibila Euskal Herrian: irudien bidez egindako ibilbidea* izeneko hitzaldia egingo du bihar, martitzena Iñaki Egaña ikerlari eta idazleak. 19:30ean izango da, Miguel Altuna institutuko areto nagusian eta hizlariak besteak beste atal hauek jorratuko ditu: Errepublikaren urteak; matxinatuen altxamendua; Gipuzkoan kokatutako borrokaldiak; Eusko Jaurlaritzaren antolaketa; Durango eta Gernika; Bizkaian, mendiz mendi eta Euskal Herria, frankisten esku.

DEBAGOIENA | MUGAEGUNA HILAREN 15A DA

### Arrasate-Oñati lasterketaren kamisetarako diseinu bila dabilta

Oñatiko Laixan euskara elkarteak -Arrasateko AED elkartearekin eta Berriarekin batera antolatzen duen- Arrasate-Oñati lasterketaren kamisetarako diseinu berriaren bila dabil. Horretarako, lehiaketa deitu du eta Euskal Herri osoko biztanleek har dezakete parte. Marrazkiak bi koloretakoa izan behar du gehienez eta marrazkiari *XXIII. Arrasate-Oñati lasterketa* izena eta euskarari lotutako lelo bat gehitu beharko zaizkio.

Lanok Laixan euskara elkartera bidali edo eraman beharko dira -Bidebarrieta 18, behe; 20560 Oñati- apirilaren 15a baino lehen. Kartazalean *Arrasate-Oñati lasterketako kamiseta* oharra jarri behar da.

DEBAGOIENA | APIRILAREN 15A ARTE DA IZENEMATEA

### Gutxitasun fisiko edo sentsoriala duten pertsonendako oporrak

Aurreko urteetan bezala, Elkartuk, Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak oporraldiak antolatu ditu. Izena eman dezakete 16 urtetik gorako eta gutxitasun fisiko, organiko edo sentsoriala duten pertsona guztiak; beti ere, ezingo dute gaisotasun larririk izan eta ezta osasun zerbitzu berezien beharrik ere. Bestalde, gaixotasun larriagoa eta mugikortasun arazoak dituzten lagunek lehentasuna izango dute oporraldiotan. Era berean, norik bere beharrik betetzeko beste pertsona baten premia duten eskatzaileek zerbitzu hori egiteko gai den beste pertsona baten izena ere eman beharko dute. Eskabideak Elkartuk Ondarreta pasealekuan duen egoitzan aurkeztu beharko dira apirilaren 15a baino lehen. Informazio gehiagorako deitu 943 31 67 70 telefonora.

BERGARA | LANEK AZARORA ARTE IRAUNGO DUTE

### Gaur itxiko dituzte Artekaleara eta Arruriaga ibilgailuendako

Martxoaren 30ean itxekoak baziren ere, gaur, astelehena itxiko dituzte ibilgailuendako Artekaleara eta Arruriaga kaleak ibilgailuendako Udalak jakitera eman duenez. Hirigune historikoa biziberritzeko eta suspertzeko planaren barruan kaleok berrurbanizatzeko lanak egingo dituzte eta azarora arte iraungo dute. Udaleko iturrien esanetan merkatal lokaletara zein etxebizitzetako atarrietarako sarbidea uneoro bermatuko da, eta asteburu eta jai egunetan modu berezian seinaleztatuko eta egokituko dira obratan dauden kaleak oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko.

ESKORIATZA | HILAREN 11TIK 14RA BITARTEAN

### Farmaziaren inguruko jardunaldiak egingo dituzte Ibarraundi museoa

Farmaziaren inguruko jardunaldiak apirilaren 11tik 14ra bitartean izango dira, Ibarraundi Museoa. Jardunaldien barruan erakusketa egongo da antzinako farmaziaren gainean, 16:00-19:00 orduetartean. Horrekin batera, hitzaldiak ere egingo dira. Hilaren 11n *Sendabelarren propietateak eta tratamenduak* hitzaldia egingo dute, 18:30ean; hilaren 18an, berriz, *Farmaziaren historia 1.000 botika piezaren harira* izango dute berba gai, 18:30ean.

Horrez guztiaz gain, hilaren 13an ikasleei zuzendutako ekitaldiak ere egingo dira jardunaldion barruan: enplastuak egiten ikasiko dute, besteak beste.

## Hitzorduk



### MENDEKOSTEETAKO SUKALDARITZA LEHIAKETAKOEN BATZARRA |

Antolatzaileak eta parte-hartzaileak etzi, eguaztena, batzartuko dira

Bergarako Mendekoste jaietako sukaldaritza lehiaketa egingo dute aurten ere; 13. aldian izango du. Baina aldaketa bat sartu dute orain antolatzaileek: hain zuzen, aurreko edizioetan, parte hartu behar zutenekin batu ohi ziren antolatzaileak. Baina iaz, deialdia aldeztu aurretik egitea komeni zela

konturatu ziren. Horrenbestez, etzirako, hilak 6, eguaztena, deitu dute batzarra. Antolakuntzan parte hartu nahi dutenendako da. Kultura etxean batzartuko dira 19:00etan.

Sukaldaritza lehiaketa maiatzaren 14an, zapatua, jokatuko da San Martin plazan, 11:30ean.

### ANTZUOLA |

• **Menopausiaren gaineko hitzaldietarako izenematea**  
Hitzaldiok hilaren 12tik 14ra egingo ditu Jose Luis Martin adituak. Olanan etxean izango da, 18:30-20:00etara. Joan nahi dutenek izena eman behar dute eta bihar, martitzena, da azken eguna, udaletxean.

• **Udalekuan izena emateko epea zabalik dago**  
Bai umee, bai begiraleek ere, zabalik dute izenemate epea hilaren 8ra bitartean. Horretarako, udalera jo behar duzue.

### ARETXABALETA |

• **Txiapasen gaineko emanaldia egingo dute**  
Gorka Quevedok egingo du emanaldi hori hilaren 7an, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendi euskara elkarteak antolatzen du.

• **Posta bidezko botoa tramitatuko du EAJ-EAK**  
Aretxabaletako EAJ-EA koalizioa gertu dago posta bidezko bozka tramitatzen laguntzeko. Horretarako, jo batzokira astelehenetik eguaztena bitartean, arratsalde, eta 943 79 57 43 edo 943 79 84 85 telefonotara deitu. Apirilaren 7a, eguena, duzue mugaeguna.

• **Emakumei zuzendutako autoestimu tailerra**  
Udal Prebentzio Sailak antolatu du tailer hori apirilaren

7tik ekainaren 9ra, bi orduko saiotan. Izena emateko, deitu 943 71 18 62 telefonora.

### ARRASATE |

• **Nagusia eta sexualitatea, hizpide hitzaldi baten**  
Bihar, martitzena, *La sexualidad en las personas mayores* delako hitzaldia egingo dute Uribarriko erretiratuen elkartean, 17:00etan. Kutzak antolatu du.

### BERGARA |

• **Aldundiaren udako oporraldiak eta udalekuak**  
Udalekuak 7 eta 13 urte arteko umeendako dira eta zozketan izena emateko epea bihar martitzena zabalduko dute, apirilaren 13ra bitartean. [www.gipuzkoakogazteria.net/udalekuak](http://www.gipuzkoakogazteria.net/udalekuak) helbidean eman daiteke izena, kultura zerbitzuan edo gazte zerbitzuan. Zozketa apirilaren 26an egingo dute. Oporraldiari dagokionez, 14tik 17ra arteko gazteei zuzenduta dago eta apirilaren 19an zabalduko dute zozketan izena emateko epea, 29ra bitartean. Zozketa maiatzaren 10ean izango da.

### ESKORIATZA |

• **Estresaren gaineko hitzaldia egingo dute etzi**  
*Estresa: lanpetuta baina ez nekatuta* delako hitzaldia egingo du Estibaliz Andrio medi-

ku gerontologoak bihar, martitzena, kultura etxean, 18:15ean. Olazar erretiratuen elkarteak antolatu du.

### OÑATI |

• **Hezkuntzaren gaineko bost eguneko tailerra, Elkar Hezin**  
Apirilaren 7tik maiatzaren 5era bitarteko tailer baten, umeen osasunaren eta ohitura egokien gaineko aholkuak emango dizkiete gurasoei. Izena emateko, 943 71 82 72 telefono zenbakira deitu behar da. Edozeinek parte har dezake, baina Elkar Heziko ikasleen aita-amek lehentasuna izango dute.

• **Hirugarren adinekoendako gogojarduerak deitu dituzte**  
Arantzazuko frantziskotarrek deitu dituzte gogojarduera jardunaldi horiek. Hiru aukera dago: apirilaren 17tik 23ra eta maiatzaren 22tik 28ra, euskaraz; eta maiatzaren 8tik 14ra, gaztelaniaz. Izena emateko, deitu 943 78 13 15 telefono zenbakira.

• **81ean jaiotakoek bazkaria izango dute apirilean**  
1981ean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute apirilaren 30ean, eta izenematea apirilaren 18a baino lehen egin behar da. Horretarako, sartu 30 euro Euskadiko Kutzako honako kontuan: 3035 0002 13 0020042837.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 76 92 71**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Erregai usaina kalean eta zapatu goizetan bakarrik?**  
Bergarako irakurle batek eman digu aditzera hurrengo kexa. Berak ere ez daki oso ondo zerk eragiten duen, baina esan digunez, Bergarako plaza eta Barrenkalearen inguru horretan erregai usaina egoten da: "zapatu goizetan igarri dut". Bitxia behintzat bada eta hori dela eta, dakienari kontatu diezagula eskatu nahi diogu hemendik, eta ea gure irakurlearen kezka argitzen laguntzen digun.

• **Auto gutxiago egotera, leku gehiago aparkatzeko**  
Irakurle batek txaloak bidali ditu Aste Santuan herrian leku gehiago egon delako autoak aparkatzeko. Oporretara joango ote ziren?

• **Igotako oinezko zebra-bidea behar dugu**  
Herri batzuetan behar ez diren lekuetan ere jarri dituzte bidea baino gorago geratzen diren oinezkoen pasabideak, auto gidarientzako amesgaizto bihurtzeraino askotan. Hala ere, oraingo honetan, horietako baten aldeko eskaria jaso dugu gure erredakzioan: "Txistuak Bergarako Udalarentzat eta udaltzaintzat!" esaten du gure irakurleak. "Hasteko -dio berak- Bergarako plazan, Barrenkale ondoko oinezkoen pasabidearen kokapena salatu nahi dut. San Pedro kaletik oinez jaisteko leku onean dago, baina Barrenkaletik autoz datozenek ez dute astirik izaten oinezkoari bidea emateko (horrelakoetan beharko lukeen moduan). Hortaz, Udalar eskaria (bestela udaltzainei): jar ezazue bidea baino gorago geratzen diren pasabide horietako bat eta autoek geratu egin beharko dute, nahi ala ez, oinezkoa etorri ala ez, autoa apurru nahi ez badute behintzat. Bitartean, udaltzainei bertan egotea eskatuko nieke, leku horretan oinezkoak lasaitasun apur bat izan dezagun bidea zeharkatzeko. Eskerrik asko".

## Sarean harrapatuta

### Oñatiko kirol instalazioen egoera

Oñatiko kiroldegiak Gipuzkoako kirol zerbitzu onenaren saria jaso du joan den hilean. Hala ere, herrian behin eta berriro entzuten da Ibarako aldagelen egoera txarra dela eta kiroldegiko aldageletan lapurretak egon

direla. Kiroldegia handitzeko lanetan ere ari dira orain. Horren harira, eztabaidarako galdera jarri dute *Goiena.net*-en: Ze iritzi duzu Oñatiko kirol instalazioen gainean? Hemen dituzte iritzi batzuk.

#### IBARRAKO ALDAGELAK HOTZAK ETA ZIKINAK

Oñatiko kirol instalazioei nota bat ematekotan nik 3 bat eman-go nieke.

Ibarra penagarri dago: aldagelak hotzak eta zikinak, jokozelaia zuloz beteta eta ikusleentzat ez dago ez aterperik ez eta gerizperik.

Kiroldegia bete-bete eginda egoten da: aldageletan ez dago lekurik eta kristoren usaina dago. Kantxa kolapsatuta egoten da; hutsik dauden bakarrak teniseko pistak dira.

Porrupatata / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### GAUZA POLITAK EZ, ERABILGARRIAK EGIN

Kantxa denbora guztian okupatuta dago eta alokatzea gura izanez gero bi hileko zozketan sartu behar da.

Aldagela ezin okerrago dago: dutxak eskasak dira eta kirats galanta egoten da. Nik uste hobeto dela aldageletan komunik ez egotea. Gimnasioan erauzgailu bat behar da, izugarriko beroa egiten baitu. Espero dut kiroldegi berria egunero erabiltzen dutenen iritziarekin eta proposamenekin egingo dutela, ez bulegoan egoten denaren iritziarekin. Gauza politikak ez, erabilgarriak egin bihar dira.

Bertakua / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### KIROL INSTALAZIOAK ERRESPETATU

Ni beste kiroldegi batzutan nahiko ibilitakoa naiz eta ez dut uste hain gaizki daudenik. Oñatirrok ezin gara kexatu, nahikoa dugu-eta. Okupatuta egon arren, denetik egiteko eta erabiltzeko aukera dugu. Beste herri batzutan askoz ere okerrago daude bai dutxak eta bai kantxa. Gomazkoa izan edo ez, antzerakoa...

Gehiago errespetatu kiroldegia eta bere instalazioak. Izan ere, egin beharrekoak zurlora eginez

gero dena hobeto eta garbiago egongo litzateke.

Bueno / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### ARRASATEN EGINGO DITUZTE INSTALAZIOAK

Azkenean Arrasaten egingo dituzte kirol instalazio moderno eta elegante batzuk, bertan Debagoieneko herrietako jendez osatutako talde batzuek jokatu dezaten.

Beraz, instalazio denak Arrasate moduko herri handi batean egingo dituzte eta beste herriok auzo moduan geratuko gara instalazio eta kiroldegi barik. Oñatiko kirol instalazioen hobekuntza beharrezkoa da.

Amaia / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### PILOTALEKUAK BEHAR DIRA AUZOETAN

Polikiroldegia handitzen ari dira eta hobekuntza batzuk egin badaitezke ere, orokorrean instalazio onak dira eta kirola ondo egin daiteke. Hala ere, kantxa bat falta da kiroldegian.

Auzo batzuetan, Olakuan, Errekalden eta Bidebarrietan, esaterako, pilotalekuak jarriko nituzke. Izan ere, ez dago pilotaleku asko palan edo pilotan egiteko. Gainerako kirolean aritzen direnek beraiek eskatu beharko dute behar dutena.

Xon / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## www.goiena.net

Oñatiko kiroldegiak saria jaso berri du. Egoera onean daude kirol instalazioak?



Zure iritzi eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

## Halaxe erantzun digute

Hauteskunde kanpainak eraginkorrak direla uste duzu? Zertan dira eraginkorrak



MARTIN GARITANO | KAZETARIA

Kanpainak berak ez du eragin berezirik gehiengoak aukera hartu izaten duelako, baina badu garrantzia aurreiritzia indartzeko eta botoa ematearen aldeko jarrera laguntzeko. Kanpaina hau berezia izango da, garai baten legebiltzarrean 2. indarra izan zena jokoan kanpo dagoelako.



IÑIGO FERNANDEZ | PUBLIS NCM AGENTZIA

Politikan, egiten dena bezain garrantzitsua da, edo gehiago, zer esaten den eta nola. Hauteskunde kanpainetako azken esprintak nekez sinetsaraziko du botoa nori eman erabakita daukan inor, baina zalantzatiak edo boto praktikoa emateko prest daudenak mugiaraz ditzake.



MARIA AGIRRE | KAZETARIA

Komunikabideetan jokaten dira hauteskundeak, ez ohiko iragarkiekin, beste modu batera (El Pelanas pertsonaiak EAJ-EA hauteskunde kanpainaren hasieran parte hartu du). Botoak gutxi aldatzen dira, eta pentsatu behar gogoratu eraginkortasuna ez dela hain garrantzitsua.



ANDER ETXEBERRIA | SOZIOLOGOA

Eragina badute, baina ez dago argi zein den eragin erreala. Dena dela, talde politikoei inportantzia handia ematen diete hauteskundeei. Kasu honetan, gainera, bizi dugun egoera berezia dela eta, bozketa aurreko egun hauek inoiz baino garrantzitsuagoak izango dira posizioak finkatzeko.




## Egunkarietako harribitxiak

### KAMIOI BAT 20 SEGUNDURO, TRANSPIRENAIKAREN BIDESARIA

Madril eta Paris lotzeko Sanzen gobernu bultzatzen ari den autobideak banatu egin ditu nafarrak. Aldeko eta kontrako jarrera ugari daude. Iruñetik Nafarroa Beherera Erro, Orreaga, Luzaide, eta Donapaleutik igaroko litzateke, besteak beste.

'Gara'  
2005-04-03



### JOAN PAULO II.A 1920-2005

Gaixoaldi luze baten ondoren hil zen zapatu gauean, Vatikanon, Eliza katolikoak azken 26 urteotan izan duen arduradun nagusia. Atzo, domeka, egunkari guztiek jaso zuten albistea eta baita gehigarri bereziak egin ere. *El Mundok*, esaterako, 100 pertsona ezaguni Aita Santuaren jarduna baloratzeko eskatu die. Batez beste, 6,95eko puntuazioa eman diote. *Berriak*, bestalde,

Euskal Herrian egon zenekoa ekarri zuen gogora. 1982ko azaroaren 6an etorri zen eta Loiolako San Inazio basilika eta Xabierko gaztelua bisitatu zituen. Bera izan da Euskal Herrira etorri den Eliza katolikoko buruzagi bakarra. Loiolako basilikara joan zenean milaka fededun zituen zain eta haiek izan ziren Joan Paulo II.a euskaraz entzuten lehenak.

'Berria'  
2005-04-03



## Zorroztailea

### ... baina ez hutsa



*Komiki-irakurleak gura duena da ondo pasatzea, entretenituta-eta egotea, eta artelanak ikusteko Pradora edo National Gallery-ra edo horrelakoetara joaten da. Brugueraren erakusketari dagokionez, zer esango dizut... oso ondo iruditzen zait urte haiek gogora ekartzea, baina ez da hainbesterako. Artea? Oso ondo. Baina nik entretenitu egin gura dut soilik. Eta kitto...*

'El Semanal' | 2005-04-03

zuhur bat? Ospeak pisu handia du eta...).

Bai, denborak ikuspegi aldaketa bitxiak eragiten ditu. Jolasa zientzia bihurtzen du; denborapasa atsegina zena, gurtu beharreko artelan. Oso gustuko ditugu hitz potoloak, eta serio-serio hartzen dugu dena, gauza naturalenak, musika, marrazkiak, istorioak... trazedentzia izugarri jantziz. Liburu bat edo film bat txarra dela esateko, ez da ba sarri esaten entretenimendu hutsa besterik ez dela? Hori gutxi balitz bezala! Hala egiterakoan, ahaztu egiten dugu sorkuntza, lehenik eta behin, ondo pasatzea dela, jolastea, bizitzaren gauza onak gozatzeta, eta haren lekua benetako bizitzan dagoela, erakusketa-aretoetan edo historia liburuetan baino lehenago.

Hortaz, entretenimendua, bai, baina ez hutsa.

Leire Kortabarría


Grazia egiten zion Francisco Ibañez marrazkilariari, Mortadelo eta Filemon komikietako pertsonaien sortzaileari, berak sosak irabazteko marrazten zituen biñeta haiek gaur egun artelan kategoriara jaso izana. Ametsetan jarrita, gustatuko litzaidake denboran atzera egin eta Cervantes, Axular, Mozart, Hitchcock edo Altamirako margolari anonimoari jakinaraztea euren ekoizpenak maisulan bilakatu direla, eta galdetuko nieke zein asmorekin egin zituzten orduan lan horiek.

Ziur nago askok Ibañezen antzeko hitzak esango lituzketela: "Nik entretenitu gura nuen, eta kitto". (Gaur egungo artista asko eta askori ere galdera berbera egingo nieke nik, baina zenbatetan jasoko nuke erantzun

**"Liburu bat edo film bat txarra dela esateko, ez da ba sarri esaten entretenimendu hutsa besterik ez dela?"**

**"Hala egiterakoan, ahaztu egiten dugu sorkuntza, lehenik eta behin, ondo pasatzea dela, bizitzaren gauza onak gozatzeta"**

## Tira, tira...



Martintxo 'Berria' | 2004-IV-3

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Mundo'

MUNDUA ALDATU ZUEN AITA SANTUA

Joan Paulo II.ak ez du sekula dar-dar egin liberazioaren teologiari edo Hans Küng-en interpretazio heterodoxoei aurre egin behar izan dienean. Ez du inoiz halako ildo progresistekin bat egin; gehiago izan da Opus Deiren jarraitzailea. Doktrina tradizionala defendatu du beti eta albo batera laga abortua, dibortzioa, antisorgailuak...

Editoriala  
2005-04-03

### 'El Diario Vasco'

ARTZAIN ETA LIDER

Haren jarrerarekin ados egon ala ez, ez dago zalantzarik Joan Paulo II.a ez dela izan elizgizon oportunistak; ezta diplomatiko moldakorra ere, fede erlijiosoz betetako eta uste sakoneko gizona baizik. Gainera, inongo konplexurik gabe eta sendo transmititzen zituen bai fede, baita uste sakonok ere Joan Paulo II.ak.

Editoriala  
2005-04-03

### 'El Pais'

AITA SANTU SENDOA

Mugak hautsi zituen: igeri egiten zuen eta mendian ibili; (...) Lehena izan zen aitasantutzaren irudi mitifikatuari sakratutasuna kentzen sotanaren gainetik jertsearekin azalduz eta abituaren azpitik praktizatzen eraman. Horregatik guztiagatik pentsatu genuen, hasiera batean, bederen, joera aurrerakoidun Aita Santua zela.

Editoriala  
2005-04-03

### 'Deia'

AITA SANTU BATEN ARGI-ILUNAK

Bere jarrera eta ideologia ez ziren oztopo izan Bushek Iraken aurka agindutako eraso ilegala gaitzesteko. Nahiz eta aurkakotasun hura ez zen abortuaren, antisorgailuen... aurrean bezain beligerantea izan. Aita santutzaren balantzea egin beharko balitz, moralaren kasuan joera kontserbadorea izango luke; ideologiaren kasuan, eskumakoa.

Editoriala  
2005-04-03

# KIROLA

- AGRk erraz irabazi zuen atzo Gasteizko Bi Milaren aurka igoera faseko bigarren partidua | 16
- Mugarri Alkesak 92-70 irabazi zion Urdanetari Federazio Kopako lehen partidua | 17

Fernando Goñik  
partidu borrokatu  
batean irabazi zion  
atzo Peñagarikanori  
Bergaran | 14

## FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK



ARGAZKI PRESS

Gari Uranga dagoeneko hasi da taldean titularra dela ikusten, eta gol politak sartzen dakiela ederki erakutsi zuen Osasunaren aurka zapatuan.

**REALA** | TALDE DONOSTIARRAK IA MATEMATIKOKI LORTU DU MAILA MANTENTZEA

# Golak binaka sartuz lortu du talde txuri-urdinak maila mantentzea



Jokin Etxebarria

*Nihaten hutsunea igarri da jokoan, baina turkiarra ez dagoenetik Amorrorturen taldeak binaka sartzen ditu golak, eta horri esker puntu asko lortu ditu Realak*

Dagoeneko lasai egon gaitzke Realeko zaleak, zoritxar bat gertatu ezean lehen mailan jarraitzea lortu dugu eta Osasunari esker. Gainera, fenomeno bitxi bat gertatu da Amorrorturen taldean: goleatzailea falta, eta golak

binaka sartzen hasi. Hala ere, ezin esan daiteke, talde donostiarraren jokoak txundituta uzten gaituenik. Jokoa ez da ona, eta batzuetan suertez, eta beste batzuetan kontrarioa txarragoa izan delako lortu ditu puntuak

—beharrezko puntuak— Realak. Hala ere, optimista naiz.

Orain arte, mailan mantentzeko puntuak lortzea zen garrantzitsua, eta egiten zen jokoa ez zuen gehiegi ardura. Orain, ia matematikoki maila mantentzea

lortu dela ikusita, gure kide bizkaitarrek egiten duten legez, zerbait gehiagotan pentsatzen jarraitzea, eta agian horrela, joko ona agertzen hasiko da talde donostiarreko jokalarien oinetan.

### ENTRENATZAILE BERRIA?

Jakina da ekainean zuzendari-tzarako hauteskundeak egongo direla Realean, eta ziurrenik zuzendaritza talde berria sartuko da. Hori dela eta, jadanik Amorrorturi galdetu diote datorren urtean Donostian jarraituko

duen. Bere erantzuna logikoa izan da; zuzendaritza talde berriaren eskuetan geldituko da. Baina Donostian geldituko ez delako inpresioa daukadan arren, eta entrenatzaile bezala oso kritikatu izan den arren, ez dut uste Deustuko entrenatzaileak denboraldi txarra egin duenik. Kontuan eduki behar da zer nolako arazoak egon diren Realean denboraldia hasi zenetik hona, eta harrobiko jokalariek zenbat partiduko jokatu dituzten. Hori ikusita, nork ez zuen alde aurretik sinatuko dagoeneko salbu egotea?

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• AMORRORTUK JARRAITUKO DU REALEAN DATORREN URTEAN?



ENERITZ ETA OLATZ | BERGARA

“Entrenatzaileak ez du lan txarra egin eta jokalarien errua ere ikusi beharra dago”

“Gure ustez gelditu egingo da. Entrenatzaileak ez du lan txarra egin, jokalarien errua ere ikusi beharra dago. Amorrortuk egin duen lana datorren urtean realean gelditzeko modukoa izan da”.



JOSE MANUEL | ANTZUOLA

“Zuzendaritza aldaketak ez du eraginik izango”

“Baietz uste dut. Denboraldi txukuna egin du, batez ere gazteekin, eta zuzendaritza aldaketak ez du eraginik izango”.



BEA ETA EVA | ARRASATE ETA ARETXABALETA

“Zuzendaritza aldaketarekin batera, entrenatzaile aldaketa ere egongo da”

“Gure ustez ez du jarraituko. Zuzendaritza aldaketarekin batera entrenatzaile aldaketa ere egongo da Realean, eta Amorrorturi gelditzen zaion urtea diruz ordainduko dutela uste dugu”.



JUAN LUIS, GABRIEL ETA GENARO | EIBAR

“Baietz uste dugu, jarraituko duela. Gainera, zein ekarriko dute ba?”

“Baietz uste dugu, jarraitu egingo duela. Lan ona egin du, batez ere harrobiko jendearekin, eta zuzendaritza aldaketak ez du eraginik izango Deustuko entrenatzailearengan. Gainera, zein ekarriko dute ba?”



ANE ETA AMAIA | BERGARA

“Bere lana nahiko ona izan da eta entrenatzailea taldean geldituko da”

“Gure ustez entrenatzailea taldean geldituko da. Bere lana nahiko ona izan da, eta edukitako arazoak kontuan izanda, nahikoa egin du Realak maila mantentzearekin. Ez dugu uste zuzendaritza berriak kaleratuko duenik”.

Athletic

Athleticek ez zuen inongo aukerarik izan Vila-real taldearen kontra

*Aurrean talde boteretsu bat topatu zuen, baina erraztasun gehiegi eman zituen defentsak*

kokapen akatsaren ondorioz, Jose Mari bakar bakarrik gelditu zen. Esan bezala, akats horiek behin baino gehiagotan erreplikatzeko dira, baina ez da irtenbidea topatzeko mugimendurik ikusten.

ZAPATUAN, DERBYA

Hurrengo zapatuan Realearen kontrako derbya izango da San Mamesen. Anoetan partiduari buelta eman zioten Realekoek, baina benetan partidu ikusgarria izan zen. San Mamesen ere partidu lehiatu bat izango da, derbi guztien moduan, borrokatua.

Bestalde, begi bistan dago Kopako partidua. Apirilaren 20an izango da Sevillako partidua. Benetan partidu garrantzitsua.



Jon Unamuno


Lehenengo sei postuetan sartzeko azken trenak ihes egin du? Matematikoki oraindik aukerak badaude, eta ondorioz, ligan helburu berdinarekin jarraitu beharko du talde zuri-gorriak. Vila-realen kontra 3-1 galtzea ez da beste munduko zerbait. Talde valentziarrak izugarritzko denboraldia egiten dihardu eta forma oso onean dauden jokalariai dauzka.

Baina, gure taldean zer? Denboraldi honetan hainbat buruhauste eman dizkigun defentsako akatsak ikusi ziren berriro ere. Gainera, ikusten diren akats gehienak taktikoak direla ikusten da. Adibide moduan, lehen golean Murillok izan zuen

Ligan helburu berdinarekin jarraitu beharko du talde zuri-gorriak

Apirilaren 20an izango da Kopako lehen partidua, benetan partidu garrantzitsua

• ATHLETICEKO ZALEAK



AINZANE AGIRRE

ATHLETICEN PARTIDU ESKAS BAT IKUSI ZUTEN

Athleticeko zaleak partiduaren hasieran gogotsu zeuden. Bazekiten partidu zaila izango zela, baina Yesteren itzulerarekin itxaropentsu zegoen bat baino gehiago. Hala ere, partiduaren nondik norakoa ikusita, etsipena agertu zen. Hurrengo astean partidu berezia izango da Athleticek jokatu duena eta zaleen artean aste beroa espero da. Horrelako asteetan hainbat eta hainbat afari jokatzen dira.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Vila-real-Athletic	3-1
Bartzelona-Betis	3-3
Levante-Deportivo	0-1
Racing-Espanyol	1-3
Albacete-R. Madril	1-2
Zaragoza-Valentzia	2-2
Malaga-Getafe	1-1
At. Madril-Mallorca	4-0
Real-Osasuna	2-0
Sevilla-Numantzia	1-0

HURRENGOAK

Getafe-Albacete
Numantzia-At. Madril
R. Madril-Bartzelona
Osasuna-Racing
Athletic-Reala
Espanyol-Sevilla
Mallorca-Zaragoza
Betis-Levante
Deportivo-Vila-real
Valentzia-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	69	30	21	3	6	57	21
2. Real Madril	60	30	19	8	3	51	26
3. Vila-real	50	29	14	7	8	51	26
4. Betis	49	30	13	7	10	50	40
5. Espanyol	49	30	14	9	7	40	36
6. Sevilla	49	30	14	9	7	34	33
7. Valentzia	47	30	12	7	11	45	32
8. At. Madril	46	30	13	10	7	36	25
9. Deportivo	45	30	11	7	12	39	36
10. Athletic	41	30	11	11	8	47	42
11. Zaragoza	40	30	11	12	7	35	42
12. Reala	39	30	11	13	6	40	42
13. Getafe	36	30	9	12	9	31	36
14. Malaga	35	30	10	15	5	28	38
15. Levante	34	30	9	14	7	34	44
16. Racing	34	30	9	14	7	33	45
17. Osasuna	31	29	8	14	7	35	53
18. Albacete	24	30	5	16	9	27	44
19. Mallorca	24	30	6	18	6	28	53
20. Numantzia	20	30	4	18	8	21	48



Kiniela

KINIELA

1. Real-Osasuna	1
2. Vila-real-Athletic	1
3. Levante-Deportivo	2
4. Bartzelona-Betis	X
5. Albacete-R. Madril	2
6. Malaga-Getafe	X
7. At. Madril-Mallorca	1
8. Sevilla-Numantzia	1
9. Racing-Espanyol	2
10. Zaragoza-Valentzia	X
11. Gimnastic-Valladolid	2
12. Alaves-Cadiz	2
13. Celta-Salamanca	1
14. Recreativo-Cordoba	1

PREFERENTE MAILA



Zelai erdiaren jaun eta jabe izan ziren Mondrakoak lehen zatian. Ez ordea, bigarrean.

## Julen Herizek hiru puntu eman zizkion Mondrari

MONDRA  
**2-1**  
TOURING

**Mondra** | Ander, Torres, Barbarias, Merkadier, Argider, Arkaitz (Ruben 71. min.), Illart (Eldin 83. min.), Maikel (Losada 80. min.), Julen (Bereziartua 89. min.), Keixi eta Asier (Inazio 63. min.).

**Touring** | Salinas, Martinez (Lopetegui 86. min.), Carrillo, Muga, Dorronsoro, Sanchez (Franco 79. min.), Neves, Solana (Mitxelena 83. min.), Munarriz (Mera 81. min.), Arrieta (Esteban 73. min.) eta Auzmendi.

**Golak:** 1-0 Julen, 1-1 Neves, 2-1 Julen.

**Epailea:** Matallanes. Oso gaizki. Errenteriarrek ibili ziren arbitroari txistu egiten.

Jokin Etxebarria

Azken emaitza txarreari agur esan zien Mondrak zapatuan, Julen Herizek sartutako bi golei esker. Hala ere, sufritu egin zuen Josu Zubiaren taldeak, eta azken bi partiduetan bezala, azkeneko minutuetan puntuak galtzear egon ziren. Eskerrak Ander atezainak gelditu onak egin zituen.

Ondo hasi ziren gauzak etxe-koendako, Julenek lehen gola sartu zuen eta bosgarren minuturako Maikelen pase bikain bat aprobetxatuz. Gainera, zelai erdian nagusi ziren mondragoe-tarrak eta Julenen abiadurarekin min handia egin zuten. Baina 25. minuturako, kanpokoek edukitako aukera bakarrean,

egundoko gola sartu zuten areaz kanpoko jaurtiketa batekin.

Bigarren zatian, etxe-koak nahiko petral ibili ziren. Gutxi-ka-gutxi behera etorri ziren eta Errenteriakoak zelai erdiaz jabetzen hasi ziren. Partidua berdinetaz amaituko zela zirudienean etorri zen etxe-koen bigarrena. Berriz ere protagonista Julen, eta berriz ere Maikelen emandako pasea aprobetxatu zuen sekulako gola sartzeko.

Hala ere, sufrimenduak ez zuen Atxabalpetik alde egin. Etxekoak, partidua irabazita zutelakoan edo, defentsan asko erlaxatu ziren, eta eskerrak Merkadier baliak moztzerakoan ederto ibili zen eta Anderrek sekulako geldituak egin zituen, bestela...

## Lan asko egin eta gero, puntu bat UDarentzat

PASAIA

**2-2**

UDA

**Pasaia** | Baños, Lucas, Bancelga, Arrieta, Lopez (Beñat, 55. min.), Otxoa, Jon, Juan, Jonathan, Ramos (Xabier, 60. min.) eta Vidal.

**UDA** | Aitor, Raul (Iñaki, 80. min.), Oxel, Armendariz, Ibarrondo (Juan, 45. min.), Eriko, Orueta (Kepa, 62. min.), Andoni Oinatz, 54. min.), Igor, Alvaro eta Joseba.

**Golak:** 1-0 Arrieta, 1-1 Kepa, 2-1 Kerman, 2-2 Igor.

**Epailea:** Iñaki Benabente. Ez zen oso ondo aritu epailea, eta txartel asko atera zituen. Pasaia jokalaritza bat eta UDako entrenatzailea kaleratu zituen.

A.G.

Partidu gogorra jokatu zuen UDak zapatuan Pasaiaren aurka. Lehen zatian ez zen inorena izan partiduaren kontrola, baina azken minutuetan penalti eztabaidagarri bat adierazi zuen epaileak etxe-ko taldearen aurka, eta aurreratu egin ziren markagailuan pasaitarrak.

Bigarren zatian ederki jokatu zuen UDak, eta banako berdinketa lortu zuen. Aukera ugari izan zituen UDak aurreratzeko, baina partidua amaitzeko hamar minuturen faltan, etxe-ko taldea aurreratu zen, eta bost minutu beranduago berdinketa lortu zuen Felix Recioeren taldeak. Puntu garrantzitsua.



Oier Loiolak ondo jokatu zuen eskuin hegalean.

## Alejandroren golak bide onean ipini du Bergara

BERGARA

**1-0**

TRINTXERPE

**Bergara** | Sesma, Loiola (Elkoroberezi-bar 84. min.), Arana, A. Berraondo, A. Agirre, Oskar, U. Agirre, Alzola (Lete 86. min.), Imanol (Garin 72. min.), Zubikarai (Iñaki 91. min.) eta Alejandro (San Vicente 52. min.).

**Trintxerpe** | Asier, Solana, Salgeiro, Pablo, Unai (Javi 54. min.), Dani, Landa (Amo-narriz 74. min.), Iñigo (Plata 54. min.), Pitu, Roberto eta Carlos (Ioritz 65. min.).

**Golak:** 1-0 Alejandro.

**Epailea:** Morales jauna. Arazorik gabe, ondo burutu zuen bere lana.

daiteke eta horri eutsi behar dio taldeak. Zaleen laguntza ezinbestekoa da denboraldi amaiera arte. Zapatuan jende gutxi hurbildu zen Agorrosinera, eta orain inoiz baino gehiago zaleen laguntza behar du taldeak.

Gola lehen zatiko azken minutuan etorri zen. Zubikarai ezker hegaletik ateratako kornere baten ondorioz, lehen zutoinean bere atzelaria ondo aurreratu, buruarekin bat eta hutsekoa sartu zuen zumarragarrik.

**BIGARRENA SARTU EZIN**

Alejandroren jaurtiketa bat lehen minutuan, San Vicenteri atezainak gelditutako baloia edo Agirre zentralak kornere batean buruarekin izandako aukerak bigarren gol bihurtzea merezi izan zuten, baina azken segundora arte sufritu behar izan zen hiru puntuak lortzeko. Epaile jaunak, jendearen etsipenerako, zazpi minutuz luzatu zuen partidua.

## Mailari eusteko beharrezko puntua lortu zuen Aloñak

UROLA

**1-1**

ALOÑA MENDI

**Urola** | Aritz, Alberdi (Pifeiro 31. min.), Zufiaurre, Mikel (Nogales 72. min.), Elgarresta, Caballero, Tena (Asier 62. min.), Oskar, Aristi, Avila eta Martin.

**Aloña Mendi** | Iñigo, Losada, Barrera, Martin, Lopez, Moia (Biaín 60. min.), Garai, Sanchez (Arregi 44. min.), Astigarraga (Garmendia 69. min.), Astola (Zubia 80. min.) eta Idigoras.

**Golak:** 0-1 Arregi, 1-1 Martin.

**Epailea:** Asier Blanco. Oso gaizki. Aloñako Idigoras jokalaria kaleratu zuen berak gaizki ulertutako hitz batzuegatik.

Asteleheneko Goienkaria

Urola atzean utzi du emaitza honekin Aloña Mendi taldeak, eta gainera golaberagea ere alde dauka Zumarragako taldearekin. Puntu garrantzitsua da, bi taldeak zelako egoeran dauden kontutan hartzen badugu, batez ere.

Hala ere, ez zen erraza izan puntua lortzea, batez ere partidu hasierari begiratzeko badiogu. Urolakoak oso gogor hasi ziren, eta aukera mordoxka izan zituzten, baina ez zuten asmatu. Aitor Oruetak orduan, sistema aldaketa bat proposatu zuen, eta oñatiarrak baloiaren jabe egin ziren. Bigarren zatia hasi eta segituan gola egin zuten, gainera, txan-



Puntu bikaina eskuratu zuen Aloñak.

txikuek. Baina, garaipena poltsikoan zutela zirudienean, etxe-koen gola etorri zen, defentsak egindako hutsarekin.

Jon Unamuno

Eman dute bergararrek lehenengo urratsa. Izan ere, etxe-ko partiduak irabaztea preferente mailan mantentzeko giltza izan

• SENIOR MAILAKO NESKAK (IGOERA FASEA)



AINZANE AGIRRE

**MONDRA 1 - MUTRIKU 2**

Atzeratutako partidua jokatu zuten atzo Mondrako neskek, eta ez zuten irabazterik lortu. Mutrikuarrek merezita irabazi zutela esan daiteke gainera, partiduan jaun eta jabe izan ziren eta. Hasi eta berehala sartu zuten gola kostakoek, eta 25.

minuturako bigarrena egin zuten. Hortik aurrera, markagailua mantentzearekin konformatu ziren. Etxekoak berriz, ezinean ibili ziren denbora guztian, eta azkenean gola sartu bazuten ere, beranduegi zen markagailuari buelta emateko.

• BIGARREN ERREGIONALA

**Epaiaren lan txarrak puntu barik laga zuen Antzuola**

ANTZUOLA	1-3	AMAROS
----------	-----	--------

A.G.

Partidu txarra ikusi genuen Estalako zelaian zapatuan. Atzeratutako partidua jokatu zuten Amaro taldearen aurka, eta ez zuten punturik lortu etxekoek.

Lehen zatian, ez zen joko onik egon, baina epailea ere ez zen fin ibili. Ez zuen jokoa jarraitzen utzi, eta behin eta berriz jokoa gelditzen aritu zen. Amarozekeok sartu zuten bat eta hutsekoa, baina Antzuolak berdinketaren gola lortu zuen, Castoren bitartez. Bigarren zatian, zelaira atera berri zen Pagaldi etxeko jokalaria kalera bota zuen epaileak, eta 10 jokalarirekin gelditu zen Antzuola. Egoera hau aprobetxatu zuen kanpoko taldeak, eta beste bi gol gehiago egin zituen.

Azkenean, epailea protagonista izan zen partiduan, punturik ez etxekoentzat, eta hurrengo partiduari begiratu behar.

• F-8 NESKAK

**Bost minutu falta zirela bi puntuk ihes egin zuten Almenetik**

ALMEN ARETXABAETA	2-2	UROLA
-------------------	-----	-------

Jon Unamuno

Partiduko minutu askotan irabazten joan arren, azkenean berdinketarekin konformatu behar izan zuten Almeneko neskek.

Miriamek sartu zuen etxeko lehen gola. Maialenekin egindako jaurtiketa bat atezainak ez zuen ondo gelditu eta Miriamek egon behar zuen lekuan zegoen. Segituan ikusi zen Urolaren aldetik zeinek erakusten zuen arrisku gehien: Irunek. Alde izan zuten penalti baten ondorioz izan zuen lehen gola sartzeko aukera bikaina, baina baloia zutoinera jaurti zuen.

Bigarren zatian, jokaldi polit baten ostean, Anderek etxeko bigarren gola sartu zuen. Markagailua eusteko nahian, defentsan lan polita egin zuten Lide eta konpainiak. Aurrean Jonek izan zuen aukeraren bat edo beste, baina golak Urolakoen aldetik etorri ziren. Irunek sartu zituen bi golak.

• 2. MAILAKO KADETEAK

**Joko nahasia, baina hiru puntuak etxean geratu ziren**

ANTZUOLA	3-1	EIBARTARRAK
----------	-----	-------------

Jokin Etxebarria

Atzeratutako partidua erraz irabazi zuten antzuolarrek. Gainera, Bergararekin batera, sailkapenaren goialdean mantentzeko balio die lortutako hiru puntuek.

Partidua ez zen oso polita izan, joko nahasia izan zen nagusi partidua osoan zehar. Eibar taldeko jokalariek atzean sartuta irten ziren, eta kontraerasaroko zain. Penalti baten bidez aurreratu ziren etxekoak, eta hortik aurrera eibartarrek aukera garbienak izan bazituzten ere, etxeko defentsa nahiko ondo ibili zen.

Bigarren zatian hasieran golak izan ziren protagonista. Talde bakoitzeko bana. Hala ere, jokoa lehen zatian bezain nahasia izaten jarraitu zuen. Azken 15 minutuetan, etxeko jokalariek bat gutxiagorekin jokatu zuten, baina hala ere, etxeko beste gol bat sartu ahal izan zuten.



**Ikusitakoak ikusita**

Jasone Zabala

**PUNTUAK BAI, BAINA PUTZUA GERTU**

Ezin ukatu dezakegu asteburu ona izan dela gure ibarreko talde guztiendako. Etxean jokatu duten bi taldeek garaipena lortu dute, eta kanpoan jokatutakoek berdinketa. Hala ere, eta Mondra salbu, gure ibarreko taldeek putzutik gertuegi jarraitzen dute. Bergara bertan murgilduta dago, eta azken orduko fitxaketek ere ez dute egoera aldatu. Zaila du oso Bergarak putzutik irtetea, eta txarrena da, irtenez gero, litekeena dela Aloña Mendi edo UDA bertan sartzea.

**Emaitzak eta sailkapenak**

PREFERENTE MAILA		BESTELAKOAK	
Sailkapena	Punt. J.	Emaitzak	LEHEN MAILAKO GAZTEAK
		Pasaia-UDA	2-2
1. Tolosa	65 30	Mondra-Touring	2-1
2. EHU	62 30	Beti Gazte-Zarautz	2-1
3. Ordizia	57 30	Orioko-Zestoa	0-1
4. Real Union	54 30	Urola-Aloña Mendi	1-1
5. Zarautz	51 30	Ordizia-Tolosa	1-2
6. Trintxerpe	45 30	Mutriku-Anaitasuna	3-0
7. Hondarribia	41 30	Oiartzun-Real Union	0-3
8. Mondra	41 30	Bergara-Trintxerpe	1-0
9. Pasaia	40 30	Hondarribia-EHU	1-3
10. Zestoa	40 30	<b>Hurrengoak</b>	
11. Touring	39 30	EHU-Pasaia	
12. Mutriku	39 30	UDA-Mondra	
13. Anaitasuna	34 30	Touring-Beti Gazte	
14. Aloña Mendi	34 30	Zarautz-Orioko	
15. Aretxabaleta	33 30	Zestoa-Urola	
16. Orioko	33 30	Aloña Mendi-Ordizia	
17. Beti Gazte	32 30	Tolosa-Mutriku	
18. Urola	31 30	Anaitasuna-Oiartzun	
19. Bergara	32 30	Real Union-Bergara	
20. Oiartzun	15 30	Trintxerpe-Hondarribia	
			<b>LEHEN MAILAKO KADETEAK</b>
			UDA Arizmendi
			Atsedena
			<b>BIGARREN MAILAKO KADETEAK</b>
			UDA Arizmendi
			Atsedena
			Bergara
			Atsedena
			Antzuola-Eibartarrak
			3-1
			<b>EMAKUMEZKOEN LIGA(IGOERA)</b>
			Aloña Mendi
			Atsedena
			Bergara
			Atsedena
			Almen Aretxabaleta
			Atsedena
			Mondra-Mutriku
			1-2

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**

Sailkapena	Punt. J.	Emaitzak	EMAKUMEEN F-8 LIGA (KOPA)
		Eibar-Elgoibar	0-1
1. Tolosa	54 25	Zugatarte-Olarizu	2-2
2. San Inazio	53 25	San Inazio-Aloña M.	3-3
3. Barakaldo	52 25	Sp. Herrera- Lagun O. 2-0	
4. Durango	47 25	Durango-Tolosa	1-0
5. Eibar	44 25	Zalla-Barakaldo	3-0
6. Elgoibar	39 25	San Martzial-Bermeo	2-0
7. Aloña Mendi	38 25	Amorebieta-Alde Za.	6-0
8. Zalla	38 25	<b>Hurrengoak</b>	
9. Lagun Onak	34 25	Alde Zaharra-Eibar	
10. San Martzial	34 25	Elgoibar-Zugatarte	
11. Amorebieta	34 24	Olarizu-San Inazio	
12. Zugatarte	33 25	Aloña Mendi-Sp.Herrera	
13. Olarizu	29 25	Lagun Onak-Durango	
14. Sp. Herrera	22 25	Tolosa-Zalla	
15. Bermeo	19 25	Barakaldo-San Martzial	
16. Alde Zaharra	7 24	Bermeo-Amorebieta	
			<b>INFANTIL OHOREZKO MAILA</b>
			Aretxabaleta Arizmendi
			Atsedena
			<b>INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)</b>
			Bergara
			Atsedena
			Aloña Mendi
			Atsedena
			<b>INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)</b>
			Arrasate
			Atsedena
			<b>INFANTIL TXIKI (KOPA)</b>
			UDA Arizmendi
			Atsedena
			<b>INFANTIL F-8</b>
			Antzuola-Ordizia
			0-7

**BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)**

Sailkapena	Punt. J.	Hurrengoak
		Zestoa-Urki
1. Amaro	17 8	Antzuola-Lasarte Ori
2. Lasarte Ori	17 8	Donibane-La Salle
3. La Salle	14 8	Antzuola
4. Urki	12 8	Atsedena
5. Antzuola	10 7	<b>Oharrak</b>
6. Zestoa	6 7	Antzuola eta Amaro
7. Donibane	0 8	taldeek atzeratutako partidua jokatu zuten ondoko emaitzarekin: Antzuola-Amaroz 1-3

• PROFESIONALAK

# Peñagarikano ederki ibili zen partidu guztian zehar, baina Goñi III.ak dotore irabazi zion

*Eskuz banakako txapelketari dagokion lehen partidua jokatu zuten atzo, eta zaleen erantzuna ona izan zen*

GOÑI III  
**22-17**  
PEÑAGARIKANO

Iraupena: Ordu bat.

Tanteoa: 1-3, 3-3, 4-3, 4-4, 4-5, 4-7, 6-7, 7-7, 9-8, 12-11, 14-12, 15-12, 15-13, 15-15, 18-16, 19-16, 19-17, 20-17, 21-17, 22-17.

Jasone Zabala

Partidu oso parekatua eta gogorra jokatu zuten Goñi III.ak eta Peñagarikanok Bergarako pilotalekuan. Eskuz banakako txapelketari zegokion partidua jokatu zuten. Goñi binakako txapelketa lortzetik zetorren, eta Peñagarikanok berriz, otsailetik banakako txapelketarako prestaketa egiten jardun du.

Hasierako sakea Peñagarikanok egin zuen. Oso seguru agertu zen Goñiren pilotak eramaterako garaian, eta 3 eta 0 aurreratu zen, baina Goñik berdintzea lortu zuen. Partidu guztian zehar, 8 berdinketa egon ziren, eta ez zen markagailuan alde nabarmenik egon azken txanpara arte. Pilotari asko eman zioten biek, eta honek Peñari



AINTZANE AGIRRE

Bi pilotariak ederki ibili ziren, baina partidua erabakitzerako orduan, Goñi III.ak gehiago asmatu zuen.

egin zion mesede. Goñiri nabari ziztaion partidu asko jokatu zituela eta nekatuta zegoela; azpeitiarra aldiz, gogotsu ari zen, jokaldiak bikain amaituz. 12nako

berdinketaren ondoren, 3 tanto jarraian egin zituen Goñik, eta momentu horretan ikusi zen pilotari Nafarra, lan erdiak egin eta gero, indarrez hobeto zegoela.

Peñak ahal zuen moduan eutsi zion markagailuari, eta aditu askok uste zutenaren kontra, nahiko lan eman zion Goñiri.

### PEÑA BIKAIN AIREZ

Sakeak eramaterako orduan bikain ibili ziren biak, baina aipatu behar da airez eramaterako orduan oso ondo aritu zela Peña. Markagailuko alderik handiena azken txanpan lortu zuen Goñik, eta intentsitate handiz jokaturako partiduan Goñi izan zen irabazle 22-17ko emaitzaz.

**Goñik ederki eutsi zion Peñaren pilotakada ederrei, eta lan asko egin behar izan zuen**

**Partidua galdu ondoren, Peñagarikano txapelketatik kanpo gelditu da**

### Adituen iritzia

“Hasiera ona izan dute bi pilotariak. Erritmo biziz jokatu dituzte hasierako tantoak, baina merezimendu guztiz irabazi du Goñik. Sakea eramaterako orduan biak ondo aritu dira. Goñiren pilotakadei ondo erantzun die Peñak, baina oraindik ere gerria makurtzen ikasi behar du”.

**FELIX AGIRRE** | OLALDEKO DELEGATUA

“Partidua ez da ona izan. Huts asko egin dituzte bi pilotariak. Peñak eskuetan izan du garaipena, baina Goñik segurtasun eta profesionaltasun handiagoa erakutsi du. Giltza dejadetan egon da: Goñik 4-5 egin dizkio Peñari, eta honek ezin izan dio erantzun”.

**MANOLO ZUBILLAGA** | PILOTAN ADITUA

“Ez da partidu polita izan. Partidu gogorra izan da. Lan asko egin dute partidu guztian zehar, eta ordubetz pilotari asko eman diote. Nahiko ongi ikusi dut Peña gaur, lan ederra egin du, baina azkeneko tantoetan Peñaren urduritasunak, Goni III.ari merezimendu oso eman dio garaipena”.

**ANTTON MAIZ** | PILOTARI OHIA

## Beste bi partidu ere izan ziren atzo Bergaran

Banakako norgehiagokaren aurretik binakako partidu bat izan zen: Del Rey eta Apeztegiak, Capellan eta Pascualen aurka jokaturakoa. Lehenengoek, 22 eta 17 irabazi zuten. Del Rey bikain aritu zen partidu guztian zehar, lan ederrak emanez Pascual eta Capellani. Apeztegiak, bere lana txukun egin zuen, eta Pascual ez zen batere ondo aritu, ez sakea eramaterako orduan, ezta pilota errazetan ere. Modu honetan, Capellan aurreko aldean bakar bakarrik zegoen, ez zuen eta atzeko aldean Pascualen laguntzarik. Capellan eta Pascualek, aurreko koadroetan Del Rey fin zebilela ikusirik, atzeko koadroetara eman eta eman aritu ziren, baina Apeztegiak ez zuen batere arazorik

izan pilota eramaterako orduan. Estelarraren ondoren jokaturako binakako beste partiduan, Etxaniz eta Arizmendik, Baleztena eta Urberuaga izan zituzten buruz buru. Etxaniz ederki aritu zen partidu guztian zehar, tantoak ederki amaituz, eta Arizmendiri ederki lagundu zion pilota zailetan. Urberuaga eta Baleztena berriz, ez ziren batere ondo aritu, eta tantoak egitea kosta egin zitzaion. Partidua ez zen batere ona izan. Urberuaga juxtu samar aritu zen atzeko aldean, eta Baleztenak aurre aldean ezer gutxi egin ahal izan zuen. Azkenean, Etxaniz bergararrak bere esperientzia erakutsi zuen gazteen aurrean, eta 18 eta 3 irabazi zuten.



# EUSKAL HERRIKO ITZULIA 2005

## MUNDUKO ONENAK GEUREAN



AZALA: MAITENA ARANA/ ARGAZKIA: GOIENKARIA



  
**IKERLEKU**  
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

EUSKAL HERRIKO ITZULIAREN 45. EKITALDIA HASIKO DA GAUR ZARAUTZEN

# Txirrindulari ugarik du Oñatin txapela janzteko aukera

*Egubakoitzera bitartean 744 km (tartean 20 mendate) izango dituzte txirrindulariek*

Edu Mendibil

Euskal Herriko Itzuliaren 45. ekitaldia hasiko da gaur Zarautzen. Aurreko urteotan moduan, antolatzaileek partaidetza bikaina izatea lortu dute. Besteak beste, UCI Pro Tour osatzen duten 20 taldeak etorriko dira. Beraz, tropeleko txirrindulari onenak izango ditugu gure errepideetan egu-

bakoitza bitartean. Lance Armstrong edo Jan Ullrich etorri ez badira ere, ez da izarririk faltako aurtengo Euskal Herriko Itzulian. Giroaren atarian, txirrindulari asko eta asko euren sasoi puntu onenetik gertu egongo dira, eta lehia gogorra izango da.

Honelakoetan gertatzen den moduan, faboritoak asko dira. Besteak beste, azken urteotako irabazleak izango dira gaurko irteerari: Denis Mentxov joan den urte-

ko txapeladuna, Iban Mayo (2003ko irabazlea), Aitor Osa (2002) edo Andres Klöden (2000). Badirudi Klödenek bere sasoi onenari eutsi diola, azken Tourrean bigarren postua eskuratu ondoren. Aipatutakoekin batera, Bobby Julich, Ivan Basso, Damiano Cunego (azken Giroko irabazlea), Haimar Zubeldia, Yaroslav Popovitch, Alexandre Vinokourov edota Alejandro Valverde ditugu garaipena lortuko faboritoen artean. Zaleen kinielatan izen horiek dira nagusi, baina sorpresaren bat gertatzea ere ez litzateke harritzekoa izango.


**Valverde, Cunego, Julich, Zubeldia edota Vinokourov dira faboritoak aurtengo ekitaldian**

**ARANTZAZU, ERABAKIGARRIA**  
Gaur hasi eta egubakoitza bitartean, bost etapa izango dituzte txirrindulariek. Euskal Herriko Itzuliak bere ohiko eskema jarrai-




Alejandro Valverdek irabazi zuen iaz Bergaran, E.H.-ko tzuliko lehenengo etapa.


## 1. etapa: ZARAUTZ-ZARAUTZ 133 km | Apirilak 4




## 2. etapa: ZARAUTZ-TRAPAGARAN 166 km | Apirilak 5



## 3. etapa: ORTUELLA-GASTEIZ 176 km | Apirilak 6



## 4. etapa: GASTEIZ-ALTSASU 167 km | Apirilak 7



Aloña Mendiko txirrindularien babesleak:

**tkv**  
Logística

**LIZARRALDE**

**KIROLAK**

**aldekooa**  
AGENTZIA




ETAPAK ETA PARTE HARTZAILEAK

tuko du, eta gauzak normal badoaz behintzat, azken egunean, Oñatin, erabakiko da aurtengo irabazlea nor den.

Oñatira heldu baino lehen, 642 kilometro egin beharko ditu tropelak. Aurtengo ibilbidea gogorra da, eta irabazlea terrenu guztietan moldatzen den horietakoa izango da. Laugarren etapa, Gasteiz eta Altsasu bitartekoa, erabakigarria gerta daiteke. Bost mendate izango dituzte txirrindulariek, baina aldaparik gogorrenak, Opakuan eta Urbanan, etaparen hasieran daude.


Goizeko sektorea Arantzazun bukatuko da, eta diferentzia erabakigarriak lortzeko moduko etapa amaiera da. Arratsaldean, berriz, 9,3 kilometroko erloju kontrakoa jokatuko da. Ordurako aurtengo irabazlea nor den erabakita egon daiteke.

5. etapa (1. zatia): **ALTSASU-ARANTZAZU**  
93 km | Apirilak 8



Altsasu-Altsasu	0 km	10:00	Elorregi	53 km	11:19
Aizkorriko benta	5 km	10:07	Bergara	56 km	11:24
Otzaurte	7 km	10:10	Angiozar	62 km	11:33
Zegama	16 km	10:24	Asentzio gaina	65 km	11:37
Segura	22 km	10:32	Kanpanzar	70 km	11:45
Zerain	25 km	10:37	Elorregi	77 km	11:55
Aztiria gaina	32 km	10:48	Zubillaga	79 km	11:58
Telleriarte	36 km	10:54	Oñati (saihesbidea)	84 km	12:06
Udana gaina	39 km	10:57	Arantzazu-Oñati	93 km	12:19
Oñati	45 km	11:07			

5. etapa (2 zatia): **OÑATI-OÑATI**  
9,3 km | Apirilak 8



Postetxea	0 km	Lamiategi baserria	6,3 km
Bikoitz jatetxea	3 km	Olalde gaina	7,3 km
Errota baserriko bidegurutzea	3,9 km	Olalde	8 km
Azpikua baserria	4,1 km	Hilerriko bidegurutzea	8,3 km
Torrekua	4,4 km	Aingeru Goardakoa	9,1 km
Upain	4,8 km	Oñati (Foruen plaza)	9,3 km
Sariartu	5,3 km		

• PARTE-HARTZAILEAK

RABOBANK	EUSKALTEL-EUSKADI	TEAM CSC	DISCOVERY CHANNEL	LIBERTY ASEGURUAK	LAMPRE-CAFFITA
<b>ZUZENDARIA:</b> BREUKINK, ERIK 1. MENTXOV, DENIS 2. BOOGERD, MICHAEL 3. RASMUSSEN, MICHAEL 4. WEENING, PIETER 5. ELTINK, THEO 6. KOLOBNEV, ALEXANDRE 7. NIEMANN, GRISCHA 8. VENEBERG, THORWALD	<b>ZUZENDARIA:</b> GOROSPE, JULIAN 11. MAYO, IBAN 12. ZUBELDIA, HAIMAR 13. SANCHEZ, SAMUEL 14. IRIZAR, MARKEL 15. ARTETXE, MIKEL 16. GONZALEZ, GORKA 17. MARTINEZ, EGOI 18. ZUBELDIA, JOSEBA	<b>ZUZENDARIA:</b> ANDERSEN, KIM 21. BASSO, IVAN 22. JULICH, BOBBY 23. LUTTENBERGER, PETER 24. VOLGT, JENS 25. PERON, ANDREA 26. SASTRE, CARLOS 27. ARVESEN, KURT-ASLE 28. CALVENTE, MANUEL	<b>ZUZENDARIA:</b> BRUYNEEL, JOHAN 31. POPOVITX, YAROSLAV 32. AZEVEDO, JOSE 33. BELTRAN, MANUEL 34. DANIELSON, TOM 35. NOVAL, BENJAMIN 36. PADRNOS, PAVEL 37. RUBERIA, JOSE LUIS 38. VAN DEN BROECK, J.	<b>ZUZENDARIA:</b> SAIZ, MANUEL 41. HERAS, ROBERTO 42. GLEZ DE GALDEANO, I 43. GIL, KOLDO 44. ETXEBARRIA, DAVID 45. NOZAL, ISIDRO 46. SCARPOINI, MICHELE 47. SERRANO, MARCOS A. 48. VICIOSO, ANGEL	<b>ZUZENDARIA:</b> MARTINELLI 51. CUNEGO, DAMIANO 52. FIGUERAS, GIULIANO 53. VILA ERRANDONEA, P. 54. SPEZIALETTI, A. 55. SABALIAUSKAS, M. 56. PETROV, EVGUENI 57. MAZZOLENI, EDDY 58. FUENTES, JUAN
ILLES BALEARS	PHONAK HEARING S.	COFIDIS	T-MOBILE TEAM	GEROLSTEINER	QUICK STEP
<b>ZUZENDARIA:</b> UNZUE, EUSEBIO 61. VALVERDE, ALEJANDRO 62. OSA, AITOR 63. OSA, UNAI 64. GUTIERREZ, JOSE IVAN 65. ARRIETA, JOSE LUIS 66. GONZALEZ, JONATHAN 67. HORRACH, JOAN 68. TAULER, ANTONIO	<b>ZUZENDARIA:</b> FERNANDEZ, JUAN 71. PERDIGUERO, M. A. 72. PEREIRO, OSCAR 73. PEÑA, VICTOR HUGO 74. MOOS, ALEXANDRE 75. GONZALEZ, SANTOS 76. JALABERT, NICOLAS 77. TSCHOPP, JOHANN 78. URWEIDER, SASCHA	<b>ZUZENDARIA:</b> VAN LONDERSELE 81. MONCOUTIE, DAVID 82. FOFONOV, DMITRY 83. BERTAGNOLLI, L. 84. PEREZ, LUIS 85. FERNANDEZ, BINGEN 86. FARAZINJN, PETER 87. EDALINE, CHRISTOPHE 88. WHITE, MATTHEW	<b>ZUZENDARIA:</b> VAN LOOY, FRANS 91. KLÖDEN, ANDREAS 92. VINOKOUROV, A 93. SEVILLA, OSCAR 94. GUERINI, GIUSEPPE 95. KESSLER, MATTHIAS 96. HIEKMANN, TORSTEN 97. WERNER, CHRISTIAN 98. LARA, FRANCISCO	<b>ZUZENDARIA:</b> DIETZEN, RAIMUND 101. REBELLIN, DAVIDE 102. LEIPHEIMER, LEVI 103. ZBERG, BEAT 104. SCHOLZ, RONNY 105. STRAUSS, MARCEL 106. ORDOWSKI, VOLKER 107. MOLETTA, ANDREA 108. WEGMANN, FABIAN	<b>ZUZENDARIA:</b> PARSANI, SERGE 111. VERBRUGGHE, RIK 112. PECHARROMAN, J. A. 113. MERCADO, J. M. 114. LOTZ, MARC 115. MORENI, CRISTIAN 116. PAOLINI, LUCA 117. SINKWITZ, PATRIK 118. GARRIDO, J. A.
SAUNIER DUVAL	FASSA BORTOLO	DAVITAMON-LOTTO	LIQUIGAS - BIANCHI	BOUYGUES TELECOM	CREDIT AGRICOLE
<b>ZUZENDARIA:</b> FERNANDEZ, J. M. 121. GARATE, JUAN MANUEL 122. PIEPOLI, LEONARDO 123. ZABALLA, C. 124. GOMEZ MARCHANTE 125. CUESTA, IÑIGO 126. CAÑADA, DAVID 127. DE LA FUENTE, DAVID 128. RODRIGUEZ, JOAQUIM	<b>ZUZENDARIA:</b> GIANNELLI, A. 131. FRIGO, DARIO 132. GUSTOV, VOLODYMYR 133. KIRCHEN, KIM 134. CODOL, MASSIMO 135. BOSSONI, PAOLO 136. FACCI, MAURO 137. GIUNTI, MASSIMO 138. SIUTSOU, KANSTANTINS	<b>ZUZENDARIA:</b> PEIPER, ALLAN 141. MERCKX, AXEL 142. EVANS, CADEL 143. BAGUET, SERGE 144. AERTS, MARIO 145. BRANDT, CHRISTOPH 146. LEUKEMANS, BJORN 147. MOERENHOUT, KOOS 148. VANHUFFEL, WIM	<b>ZUZENDARIA:</b> ZANATTA, S. 151. DILUCA, DANILO 152. GARCELLI, STEFANO 153. PELLIZOTTI, FRANCO 154. NOE, ANDREA 155. CALCAGNI, PATRICK 156. CIONI, DARIO 157. MASON, OSCAR 158. MIHOLJEVIC, V.	<b>ZUZENDARIA:</b> MOTTLE, ISMAËL 161. PINEAU, JÉRÔME 162. ROUS, DIDIER 163. LEFÈVRE, LAURENT 164. BERNAUDEAU, G. 165. BONNAIRE, OLIVIER 166. FEDRIGO, PIERRICK 167. GENE, YOHANN 168. SPRICK, MATTHIEU	<b>ZUZENDARIA:</b> ROUX, DENIS 171. BOTXAROV, A. 172. CAUCCHIOLI, PIETRO 173. HALGAND, PATRICE 174. KASHECHKIN, ANDREY 175. LEBLACHER, ERIC 176. LE MEVEL, CHRISTOPHE 177. POILVET, BENOIT 178. TALABARDON, Y.
FRANCAISE DE JEUX	DOMINA VACANZE	RELAX FUENLABRADA	COMUNIDAD VALENCIANA	KAIKU	
<b>ZUZENDARIA:</b> PINEAU, FRANK 181. CASAR, SANDY 182. DI GREGORIO, REMI 183. FINOT, FREDERIC 184. GILBERT, PHILIPPE 185. LOVKVIST, THOMAS 186. MCGEE, BRADLEY 187. MCLEOD, IAN 188. SANCHEZ, FABIEN	<b>ZUZENDARIA:</b> ALGERI, VITTORIO 191. BELLI, WLADIMIR 192. HONCHAR, SERHIY 193. IVANOV, RUSLAN 194. BORGHI, RUGGERO 195. FERTONANI, MARCO 196. GHISALBERTI, SERGIO 197. GOBBI, MICHELE 198. IGLINSKIY, MAXIM	<b>ZUZENDARIA:</b> SUAREZ CUEVA, J 201. MAYOZ, IVAN 202. PEREZ, LUIS 203. JUFRE, JOSEP 204. FLORENCIO, XAVIER 205. ELIAS, JOSE MIGUEL 206. DUEÑAS, MOISES 207. BURGOS, NACOR 208. PASAMONTES, LUIS	<b>ZUZENDARIA:</b> BELDA, VICENTE 211. BLANCO, DAVID 212. GARCIA QUESADA, C. 213. LATASA, DAVID 214. JIMENEZ, ELADIO 215. BONILLA, JOSE ADRIAN 216. ZARATE, CARLOS 217. PASCUAL, JAVIER 218. MUÑOZ, DAVID	<b>ZUZENDARIA:</b> GUERRERO, OSCAR 221. GALPARSORO, DIONI 222. ARANAGA, ANDONI 223. BRU, YON 224. SERRANO, RICARDO 225. OARBEASKOA, RUBEN 226. PALOMARES, ADRIAN 227. BERASATEGI, ANTONIO 228. MOSQUERA, EZEQUIEL	



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Euskal Herriko Itzulia

Apirilaren 11n, astelehenean, 23:00etan



Ikustekoa!



ANTON ELORTZA | ANTOLATZAILEA

# “Oñatik inplikazio handia erakutsi du Itzulia etorri izan den guztietan”

*Itzuli berezia izango da Anton Elortzarentzat, azken etapa Oñatin bukatuko da-eta*

Edu Mendibil

**Oñatiarra izanda, modu berezian bizi izango duzu aurtengo Itzulia, ala?**

Bai, gauza handia da azken etapa Oñatin jokatzea. Itzulia Oñatira etorri izan den bakoitzean, udalak, Aloñak eta herriarrek inplikazio handia erakutsi dute. Gainera, aurten, Markel Irizar oñatiarrak lasterketan parte hartuko du, eta horrek ukitu berezia emango dio lasterketari, zalantzarik ez.

**Zelan lortzen duzue txirrindulari onenak Euskal Herrira etortzea?**

Aurten errazagoa izan da, UCI ProTourraren eragingarria dagoelako. Beraz, munduko 20 talderik onenak behartuta daude txirrindulari onenekin etortzera. Aurreko urteetan zein izan den sekretua? Denboraldian toki estrategikoan jokatzeko da Itzulia, Giroaren atarian. Horrez gain, euskaldunon zaletasunak, azpiegitura egokiek eta antolaketak ere zerikusia izango zuten. Kexa bakarra eguraldiagatik agertu izan dute behin baino gehiagotan.

**Faboritoak aurreratzea zaila izaten da...**

UCI ProTourrak desberdina egingo du aurtengo denboraldia, luzea izango da-eta. Txirrindulariek ondo neurtu beharko dituzte indarrak erregulartasunari eusteko. Dena den, Mentxov iazko irabazlea, Popobitx eta Vinokourov irabazteko lehiak izango dira. Iban Mayok ere bere aukerak izan ditzake. Itzulian lan ona egin nahi izango du.

**Oñatin erabakiko da Itzulia.**

Bai, azken egunera arte emozioa izaten da eta normalean erloju kontrako proban erabakitzen da. Aurten ibilbide motza eta teknikoa izango dute azken etapako bigarren sektorean.

**Normalean mendate baten jokatzea izan da erloju kontrako hori.**

Bai, baina horrek zailtasunak ekartzen ditu. Batetik, kronoigoera egitekotan, komeni izaten da itzulerarako bide bat izatea, goraino doazen autoek-eta jaisteko aukera izan dezaten. Bestetik, antolaketa aldetik ere hobe da azken eguneko bi sektoreak toki berean amaitzea, batetik bestera denbora laburra dagoelako eta gauzak errazten

direlako horrela. Eta, azkenik, hobe da proba amaitzean txirrindulariak bidean behera ez ibiltzea partaideak heltzen diren bitartean, Tourrean ikusten den moduan. Efektu nahiko txarra egiten du horrek.

**Bestalde, zein izan da urte hauetan guztietan gehien inpresionatu zaituen txirrindularia?**

Asko, baina Gianni Bugno nabarmenduko nuke behar bada. Txirrindulari aparta izateaz gain, oso atsegina zen. Behin baino gehiagotan egokitu zitzaidan aireportura haren bila joatea, eta oso hitzuna zen. Beti zeukan konturen bat esateko, oso berritsua zen. Tipo jatorra benetan.

**“Gianni Bugnok asko inpresionatu ninduen. Tratuan oso pertsona atsegina zen”**

**“Ibilbide motza eta teknikoa izango dute txirrindulariek azken erlojupekoan”**



Anton Elortzak 15 bat urte darama Itzuliko antolaketa lanetan.

GOIENKARIA

## Markel Irizar oñatiarrak lehen aldiz hartuko du parte Euskadiko Itzulian

Markel Irizar oñatiarra 14. zenbakiarekin aterako da Zarautzen. 25 urterekin, lehen aldiz hartuko du parte Euskadiko Itzulian. Hark esan digun moduan, aukeratuakoen artean egotea sari ederra da: “Taldea handia dago eta garesti egoten da plaza bat lortzea. Itzulian gogor egin beharko dugu lan, Iban Mayok, Haimar Zubeldiak eta Egoi Martinezek irabazteko aukerak izan ditzaketelako. Iban lesionatuta egon da, baina odola irakiten berehala jartzen zaion horietakoa da eta denerako kapaz da”.



Itzuliaren aurreko egunetan ondo ikusi du bere burua: “Entrenatzen-eta ondo ibili naiz, gustura nabil. Ea zaleen aurrean lan txukuna egiterik daukagun. Ihesaldiak sortzen direnean-eta, adi egon beharko dugu eta gure aukerak aprobetxatu”.

Nola ez, Markelentzat ere proba berezia izango da: “Azken etapa Oñatin jokatzeko ilusio izugarria egiten dit. Errepideko azken zuloa ere ezagutzen dut, eta ea gauzak ondo ateratzen diren. Etxekoan aurrean aritzea oso berezia izango da”.

Pº Obispo Otaduy, nº 25  
20560 OÑATI Gipuzkoa  
Tel. 943 78 05 65

caravanas oñate

• Txirrindularientzako osagarri guztiak

caravanas oñate

• Erremolke salmenta  
• Bizikleta konponketa eta salmenta



ADITUEN IRITZIAK

# Nork irabaziko du lasterketa?

*Zaleen ahotan izaten dira faboritoak. Oñatin jokatu den azken etapara arte ez da jakingo nork irabazten duen Itzuliaren 45. ekitaldia. Hainbat aditurengana jo dugu garailea nor izan daitekeen jakiteko. Egin apustu...*



GOIENKARIA

**JESUS ARANTZABAL |**  
TXIRRINDULARI OHIA

“Ez dut argi ikusten nor izan daitekeen irabazlea. Denboraldiko sasoi honetan zaila da asmatzea nor dagoen indartsuen. Hala ere, CSC taldekoak hor aurrean ibiliko dira: Ivan Basso, Voigt eta Julich. Zubeldia eta Valverde ere Itzulia irabazteko aukerakin ikusten ditut”.



GOIENKARIA

**JOSEBA LEZETA |**  
EL DIARIO VASCO

“Nire ustez, Lampre taldeko Damiano Cunego izan daiteke irabazlea. Sasoi onean dago italiarra eta berarendako moduko karrera da aurtengoa. Alejandro Valverdek ere bere aukerak izan ditzake. Podiumeko hirugarren tokirako, berriz, Bobby Julich aukeratuko dut”.



GOIENKARIA

**JESUS KORTABARRIA |**  
‘KAXETA’ | LOKATZA TALDEA

“Illes Balears taldeko Alejandro Valverde ikusten dut ondoen. Nire ustez, hura da Itzulia irabazteko faborito nagusia. Harekin batera, Libertyn diharduen Koldo Gil eta Vinokourov bera aurrealdean ibiliko dira ziurrenik. Gustatzen zait Oñatin presatu duten azken etapa”.



GOIENKARIA

**MIKEL LIZARRALDE |**  
TXIRRINDULARI OHIA

“Zaila izaten da horrelakoetan asmatzea, faboritoak izan daitezkeen hainbat txirrindulari oraindik ez daudelako sasoi punturik onenean. Dena den, orain arte ikusitakoaren arabera, Alejandro Valverde indartsu dago. Azken etapako goizeko sektorea klabea izango da”.



GOIENKARIA

**ANARTZ AGIRRE |**  
EUSKAL TELEBISTA

“Alejandro Valverde oso ondo ibili zen joan den urteko ekitaldian eta, orain arte erakutsitakoaren arabera, bera da Itzulia irabazteko faborito nagusia. Dena den, Euskaltel taldekoren bat ere lehia horretan ibiliko da: Mayok, Zubeldiak edo Martinezek aukerak izan ditzakete”.



GOIENKARIA

**EMILIO MANDALUNIZ |**  
ELGETAKO TXIRRINDULARI ELK.

“Tbilbide polita gertatu dute antolatzaileek eta lehen egunetik lehia handia izango da faboritoen artean. Munduko txirrindulari onenak etorriko dira, eta zaila da faborito bat izendatzea. Hala ere, Valverdek sasoi onean dagoela erakutsi du, eta hura izan daiteke irabazlea. Ikusi behar”.



KONTZEJUPETIK

**PEDRO IRURTZUN |**  
ALOÑA MENDI TALDEA

“Denboraldi hasieran ikusitakoaren arabera, CSC taldekoak besteak baino maila hobean dira: Ivan Basso da nire faborittoa, eta Julich eta Luttenberger bere taldekideek ere aukerak izan ditzakete. Valverde, Di Luca, Cunego eta Vinokourov aurrealdean izango dira ere”.



GOIENKARIA

**JON UNAMUNO |**  
ASTELEHENKO GOIENKARIA

“Damiano Cunego izan daiteke irabazlea. Iaz Giroa irabazi zuen eta aurtengo Giroaren atarian sasoi onean etorriko da Euskal Herrira. Txirrindulari aparta da eta aurtengo ibilbidea ondo dator. Valverde, Euskaltekoak eta Denis Mentxov iazko irabazlea lehian egongo dira”.

**Orain arteko irabazleak**

Urtea	Irabazlea
1924	Francis Pelissier (Fra)
1925	Auguste Verdieck (Bel)
1926	Nicolas Frantz (Lux)
1927	Victor Fontan (Fra)
1928	Maurice Dewaele (Bel)
1929	Maurice Dewaele (Bel)
1930	Mariano Cañardo (EH)
1935	Gino Bartali (Ita)
1969	Jacques Anquetil (Fra)
1970	L.P. Santamarina (EH)
1971	Luis Ocaña (Esp)
1972	Gonzalez-Linares (Esp)
1973	Luis Ocaña (Esp)
1974	Migel Mari Lasa (EH)
1975	Gonzalez-Linares (Esp)
1976	G. Baronchelli (Ita)
1977	Gonzalez-Linares (Esp)
1978	Gonzalez-Linares (Esp)
1979	G. Battaglin (Ita)
1980	Alberto Fernandez (Esp)
1981	Silvano Contini (Ita)
1982	Jose Luis Laguia (Kat)
1983	Julian Gorospe (EH)
1984	Sean Kelly (Iri)
1985	Ruiz-Cabestany (EH)
1986	Sean Kelly (Iri)
1987	Sean Kelly (Iri)
1988	Erik Breukink (Hol)
1989	Stephen Roche (Iri)
1990	Julian Gorospe (EH)
1991	C. Chiappucci (Ita)
1992	Tony Rominger (Sui)
1993	Tony Rominger (Sui)
1994	Tony Rominger (Sui)
1995	Alex Zulle (Sui)
1996	F. Casagrande (Ita)
1997	Alex Zulle (Sui)
1998	Iñigo Cuesta (Esp)
1999	Laurent Jalabert (Fra)
2000	Andreas Klöden (Ale)
2001	R. Rumsas (Lit)
2002	Aitor Osa (EH)
2003	Iban Mayo (EH)

# BATYAK, S.A

• MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR  
TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC • ARTEZTEKO MAKINAK

Zubillaga industrialdea 12

Tel.: 943 78 11 15

Faxa: 943 71 82 50

e.maila: [batuak@batuak.com](mailto:batuak@batuak.com)

OÑATI

## AZKEN ETAPA, OÑATIN

1979AN ETA 1987AN ERE OÑATIN BUKATU ZEN ITZULIA

# Nor izango da Bataglinen eta Kellyren ondorengoa?

1979an eta 1987an Arantzazun jokatu zen azken etapako bigarren sektorea, Bataglinek eta Kellyk irabaziz

Edu Mendibil

Euskal Herriko Itzulia beste bi aldiz amaitu da Oñatin, 1979an eta 1987an hain zuzen ere. Orduan bezala, aurten ere bi sektore jokatuko dira Itzuliko azken etapan.

1979ko edizioan, Bermeo eta Oñati bitartean jokatu zen azken etapako lehen sektorea. Isidro Juarez izan zen etapako irabazlea. Arratsaldekoan, berriz, Oñati eta Arantzazu arteko erlojupeko pro-

**1987ko Itzulian, goizeko sektorean, Leanizbarrutia izan zen garaile Olakuako helmugan**

**Kellyrentzat, Euskal Herriko Itzulian lortu zuen azken garaipena izan zen 1987koa**

ban, Giovanni Bataglin italiarra izan zen onena. Bataglinek eraman zuen urte hartako Itzulia. Vicente Belda (Comunitat Valenciana taldeko zuzendaria gaur egun) bigarren postuan sailkatu zen, eta Migel Mari Lasak hirugarren postua eskuratu zuen.

**BI IRLANDAR ARANTZAZUN**

Zortzi urte beranduago berriz amaitu zen Itzulia Oñatin, 1987ko udaberrian. Azken kilometroetan Udako mendatea igaro eta gero, Olakuan bukatu zen goizeko sektorea eta garai hartan Teka taldean zebilen Alberto Leanizbarrutia izan zen garaile, trope-lari aurrea hartuz.



Ezkerrean, Giovanni Bataglin 1979ko Itzulian. Eskumako irudian, Sean Kelly, Arantzazun garaile 1987an.



ARGAZKIAK: A. SIERRA

Arratsaldeko sektorea jokatutik, Martin Earley irlandarra genuen liderraren maillotarekin, hirugarren etapan, Ibardinen, lortutako abantaila esker. Hala ere, Sean Kelly herrikidea zuen etsirik gogorrena Itzulia eskuratzeko. Kelly maisua zen erlojuz kontrako probetan eta maillot horia kendu zion Earleyri, azken honen hutsegi-

te bat ere tarteko izan zela. Helmuga baino lehen nahasi zen, eta urrezko segundo batzuk galdu zituen. Oñatiko Plazan irabazleari zegokion txapela eta trofeo jaso zituen Kellyk. Kas taldeko txirrindularia espezialista zen egun gutxiko itzulietan eta klasikoetan. Rolf Golz eta Julian Gorospe igo ziren berarekin podiumera.

Kellyk Euskal Herriko Itzulian lortu zuen azken garaipena izan zen hura. Aurretik, 1984an eta 1986an nagusitu zen. Rominger suitzarrak Kellyren marka berdinduko zuen geroago, 1992tik 1994ra bitarteko edizioetan nagusitu baitzen. Hala ere, Jose Antonio Gonzalez Linaresek dauka garaipen gehien: 1972, 1975, 1977 eta 1978ko Itzuliak irabazi zituen.

## Oñatin hasi zen 2000ko Itzulia, Massimo Codolen garaipenarekin

Aurten Itzuliaren amaiera izango bada, Euskal Herriko Itzuliaren hasiera izan zen Oñati, 2000ko apirilaren 3an.

Orduan Oñatin hasi eta bukatu zen lehenbiziko etapa, 130 kilometroko ibilbidearekin. Euskaltel Euskadi taldeko Aitor Silloniz izan zen egun hartako protagonista nagusia. Bakar bakarrik egin zuen ibilbide gehiena; tropelarekiko zazpi minutuko aldea ere izan zuen, baina helmugarako bi kilometro falta zirela harrapatu zuten. Azken kilometroan, Lampre

taldeko Massimo Codol italiarrak ihes egitea lortu zuen eta berak irabazi zuen etapa. Profesional mailan bere lehenbiziko garaipena lortu zuen Codolek Euskal Herrian. Horrez gain, 2000ko Itzuliko lehen liderra izan zen. Hala ere, ezin izan zion lider maillotari eutsi. Andres Klöden alemaniarak irabazi zuen Itzulia.

Zalantzarik gabe, oroitza-pen onak ekarriko dizkio Oñatik Massimo Codoli. Aurten ere Itzulian izango da italiarra. Fassa Bortolo taldean dabil orain, eta 134. dortsalarekin hartuko du parte.



Massimo Codol, erdi-erdian, lehenengo, tropeletik tiratzen.

GOIENKARIA



ESKAINTZARIK  
ONENA



UDALAITZ

Gipuzkoa etorbidea 36 ARRASATE Tel.: 943 71 18 70 Faxa: 943 71 18 71



# BANAK IMPORTA

ORAIN, GEHIEN INPORTA ZAIZKIZUN ALTZARI ETA  
OSAGARRIAK ESKURA DITZAKEZU:

## BANAK IMPORTA ARRASATE



## ORAIN, ALTZARIAK INPORTA IZANGO ZAIZKIZU

BANAK IMPORTA ARRASATE

Zerkaosteta 3

20500-ARRASATE

Tel.: 943 711 011



**MODUS**  
RENAULT. CREAMOS AUTOMÓVILES



Segurtasunean lehena bere kategorian.

**BARRUAN SEGURU SENTITUKO ZARA.**



**RENAULT MODUS BERRIA.**  
**AUTO SEGURUENA BERE KATEGORIAN**  
**DIRAIA 10.900 € -TIK AURRERA\***

\*Renault Modus Pack Dynamique 1.2 65cv. Hauek barne: BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozioa eta Prever Plana. Eskaintza baliagarria: 05/04/30. Iragarritako modelo: Renault Modus Luxe Privilege 1.5 dCi 80cv. Modus gama. Kontsumo mistoa (l/100km) 4,6tik 7,5era. CO2 emisioa (g/km) 122tik 180ra. EuroNCAP organismo independenteak inpaktua dagoenean bidaiarien babesa zenbaterainokoa den neurtzen du.



XV Juegos Mediterráneos  
Almería 2005

RENAULT  
recomienda **elf**  
902 333 500

[www.renault.es](http://www.renault.es)

**RENAULT**  
**AUTOBERRI**

ARRASATE, AZPEITIA, ELGOIBAR, IRUN, TOLOSA

1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itxaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunak
2. elkarrizketa
3. aurrera



1. ongizatea
2. maialen
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

# Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa 

E U Z K O A B E R T Z A L E A K

  
eusko  
alkartasuna

 EAJ  
PNV

• EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

# Erraz irabazi zuen AGR Arrasatek

*Partidu guztian zehar egindako defentsa onak, eta erasoan egindako huts urriak izan ziren gakoak*



AINTZANE AGIRRE

Defentsan egindako lan ona izan zen partiduko gakoetako bat.

Bigarren zatian, etxekoek beraienean jarraitu zuten. Defentsa nahiko gogor baten bidez, gol gutxi jasotzea lortu zuten, eta erasoan huts gutxi batzuk egin bazituzten ere, golak sartzen jarraitu zuten.

Kanpokoek ezin izan zuten mondragoetarrekin, eta euren jaurtiketak, nekeak eraginda, oso ahul joaten ziren etxekoan atezainarengana. Azkenean erraz irabazi zuten Arandok zuzentzen dituen mutilek.

• 1. MAILA NAZIONALA

## Tentsio gutxiko partiduan Derbya Eibar aldera joan zen

ARRIKRUTZ

17-28

ARRATE

A.G.

Tentsiorik gabeko derbya ikusi genuen zapatuan Zubikoan. Hiru partiduren faltan, Arrikruztek mailari eutsiko dio, baina Arrarteren aurka jokatuako partiduan ez zuten intentsitatez jokatu. Etxeko taldeak jende falta zuen lesioengatik eta jubenil mailako gazte askok jokatu zuten.

Lehen zati oso txarra egin zuten etxeko taldeak, bai erasoan eta baita defentsan ere. Lehen 25 minutuetan, 4 gol besterik ez zituen egin Arrikruztek, eta defentsan, altuera falta zuten, ezin izan zuten Arratekoen jokoak gelditu.

Azkenean, Arratek erreposo ederra eman zion Arrikruzti. Gelditzen diren partiduetan intentsitatea igo beharko dute.

AGR ARRASATE

33-19

BI MILA

**AGR Arrasate** | Egaña, Valle, Jonan Eskibel, Aitor Eskibel (2), Eneko Garcia (1), Agiriano (1), Urrutia (3), Murillo (2), Lonbide (3), Calleja (9), Alzelai (2), Isasmendi (5) eta Otegi (5).

**Bi Mila** | Castillo (1), Gancedo (3), Murga (5), Sanchez (1), Diez (4), Maupoey (1), Fernando (3), Ruiz de Gauna (1) eta Ozaeta.

**Epaileak:** Michel Ramos eta Juanjo Gude. Ondo bete zuten euren lana. Egia esan, ez zen arbitrazeko partidu zaila izan.

Jokin Etxebarria

Irabazi beharreko partidua zuten atzo AGR Arrasatekoek, eta erraz lortu zuten. Kontuan hartuta iguera faseko lehen partidua galdu zutela, eta hurrengo bi partiduak etxetik kanpo jokatuko dituztela, derrigorrez irabazi beharreko partidua zen Bi Milaren kontrakoa.

Kontrarioak jende gutxirekin etorri zirela ikusita, etxekoak topera irten ziren lehen zatian: defentsa gogorra eginez, eta kontraerasora irtenda. Horrela lortu zuten abantaila gutxika-gutxika handitzen joatea. Kanpokoak ezinean ibili ziren, eta fisikoki nahiko makal bukatu zuten lehen zatia Bilboko taldekoek.

Erabakia Euskal herrian  
Zazpiak bat  
Autodeterminazioa  
Independentzia  
Kirol selekzioak  
Euskararen ofizialtasuna  
Administrazio euskalduna  
Euskal unibertsitatea  
Donen arteko akordioa  
...ena eta distentsio  
...ak Euskal Herri  
...k ez  
...dien Legea  
...en iraun  
...aren ir  
...ekin elk  
...ebizitza eskubidea da  
Gizon-emakumeen berdintasuna  
Zerbitzu sozial publikoak  
Errauskailurik ez  
Euskal Yrik ez, tren soziala bai  
Lan harremanetarako euskal esparrua  
Euskal Gizarte Segurantzza  
Etorrinekin elkartasuna

Iñaki Aldekoa  
Aintzane Ezenarro  
Joseba Azkarraga Etxegibel

Zure botoa  
**aralar**  
aro berria, bide berriak  
erabaki ezkerretik  
www.aralar.net



• FEDERAZIO KOPA

# Galtzea zer den ahaztu zaio taldeari

*Behin liga amaituta, Federazio Kopa irabazteko lehia sartu dira Mugarri Alkesakoak eta liga amaitu zuten moduan hasi dute: irabazten*



ARTXIBOA

Defentsan lan polita egin zuen Mallabiabarrenak.

MUGARRI ALKESA

**92-70**

URDANETA

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (20), Mallabiabarrena (14), Mikel Biain (17), Iñigo Biain (13), Kintana (8), Ancin (2), Herzog (2), Alarcia (13) eta Domingo (3).

**Urdaneta** | Llamosas (23), Perdices, De La Hera (4), Gil (3), Bouza (3), Casado (28), Paredes, Lopez (4), Perez (2), Gonzalez, Galvas eta Gutierrez (3).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 20-21. Bigarren laurdena 47-42. Hirugarren laurdena 58-54. Laugarren laurdena 92-70.

Zapatukoa lehenengo partidua zen eta ezin hobeto hasi zuten.

Urdanetaren kontra jokaturako partidua oso orekatua izan zen lehenengo hiru laurdenetan. Hala, partiduari beste norabide bat eman zion Zurutzak eta defentsa gogortuz, Urdanetaren eraso mozteaz gain, kontraerasoetan puntu asko lortu zituen. Beste aldagai batek ere asko eragin zuen markagailuan. Urdanetako Llamosas eta Casadok min asko egiten ziharduten sartzen zituzten saskiratzeeekin, baina lau faltarekin ipini ziren momenturik erabakigarrienean. Bi jokalariren hauen falta ondo aprobetxatu zuten Mugarri Alkesako jokalariek. Baina Urdanetaren bi jokalariek eraman baldin bazuten puntuak sartzeko eran-

tzukizuna, Mugarri Alkesan banatua egon zen lan hori. Bost jokalarik sartu zituzten hamar puntu baino gehiago. Horretan datza taldearen indarra. Jokalari zehatzetan oinarritu behar, bloke osoan oinarritzen da.

**FEDERAZIO KOPAREN BILA**

Hasi berri dute txapelketa eta dagoeneko helburu nagusia eskatzea gehiegizkoa izan daitekeela

pentza lezake norbaitek. Hala ere, taldearen ibilbidea ikusita, Kopa irabazteko faboritoen multzoan sartzen da taldea.

Akatsak identifikatu eta konpontzea talde guztiek izan beharreko ezaugarri bat da eta Mugarri Alkesak badu. Denboraldian zehar ikusi denez, handitzen joan den talde bat da, eta oraindik gehiago handitzeko bidean jarri behar da, zentzu guztiak Kopan ipiniz.

**Jokalari zehatzetan oinarritu behar, bloke osoan oinarritzen da Mugarri Alkesa**

Jon Unamuno

Nork geldituko du talde arrasatearra? Azkeneko zortzi partiduetan jarraian irabazi ditu eta dagoeneko helburu bakarra ezarri beharko dio euren buruari: Kopa irabaztea. Hala da, behin liga amaituta, Kopako txapelketa buru-belarri sartuta daude Gorka Zurutzaren mutuilak.


• NOLAKO DENBORALDIA EGIN DU TALDEAK LIGAN?



GORKA ZURUTUZA | ENTRENATZAILEA

**“Denboraldi-aurrea berandu hasteak kalterako eragin zigun hasieran”**

“Gabon garaia inflexio puntua izan da denboraldi honetan. Ordura arte ez ginen fin ibili; izan ere, denboraldi-aurrea berandu hasteak kalterako eragin zigun hasieran. Poliki-poliki jokalariek berriak egokitzen joan dira eta forma hobetu du taldeak”.



JAGOBA GAMARRA | JOKALARIA

**“Lesio faltak direla eta, bostekoak minutu asko jokatu ditu elkarrekin”**

“Lesio faltak direla eta, bostekoak minutu asko jokatu ditu elkarrekin. Horrek asko lagundu digu elkar hobeto ezagutzeko. Hasiera kaskarra izan genuen, ligan azkenak ere izan ginen, baina orain zortzi partidu darrazatzen jarraian irabazten”.



AITOR ZEZIAGA | ZUZENDARITZAKO KIDEA

**“Hasiera hobea izanez gero, ligan lehen bi postuetan bukatuko genuke”**

“Hasiera hobea izanez gero, ligan lehen bi postuetan bukatuko genuke. Ondorioz EBA mailara igotzeko fasea jokatu beharko genuke. Hala ere, lesioek eta basea berria izateak, kalte egin ziguten hasieran. Orain bikain gaude, azken zortzi partiduetan irabazita”.

**Gorabeherak**

**GORA**

**Jagoba Gamarra**

Lan asko egin zuen Jagobak zapatuko partiduan. Defentsan nahiko ondo ibili zen eta kontraerasoetan bera izan zen Arrasatekoen taldeko gizonik garrantzitsuenetariko bat. Sartu zituen 20 puntuekin, taldeko saskiratzailerik onena izan zen zapatuko partiduan. Bere lana garrantzitsua izan ohi da Zurutzaren taldean eta egun ona izaten duenean taldeak asko igartzen du.

**BEHERA**

**Gorka Zurutuza**

Ez zen fin ibili entrenatzaile onatiarra. Aulkitxo ez zuen gehiegi mugitu eta egun ona izan ez zuen jokalariren bat edo besteren ordez, jokalariek gazteak gehiago erabili beharrean, kantxan mantendu zituen. Saskibaloia barru barrutik bizi duen gizona da Gorka Zurutuza eta seguru asko akats hauetatik ikasi egingo duela. Izan ere, jokalariek gazteei minutuak emanda izango dute maila handitzeko aukera handiagoa.

**Federazioak bultzatuta hilabeteko geldialdia**

Txapelketa desberdinen artean hilabeteko geldialdia egiteak ez dio inori laguntzen. Azken finean, jokalariek partiduetan jokatzeko motibazioa dira eta hauen faltak kalte besterik ez die egiten. Federazioak txapelketa desberdinak lotzeko beste bide batzuk aztertu beharko lituzke, taldeengan pentsatzen.

**Emaitzak**

**MAILAZ MAILA**

**LEHEN MAILA**

Mugarri Alkesa-Urdaneta 92-70

**SENIOR MAILAKO**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

Candy BKE Atsedena

Aloña Mendi Atsedena

**GAZTE MAILAKO**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

Mugarri Alkesa Atsedena

Aloña Mendi Atsedena

Araneta Atsedena

**KADETE MAILA**

Mugarri Alkesa Atsedena

Lacor Atsedena

Aloña Mendi Atsedena

**NESKEN BIGARREN MAILA**

Eskoriatza Atsedena

**GAZTE NESKAK**

Aloña Mendi Atsedena

Eskoriatza Atsedena

**KADETE NESKAK**

Bergara Atsedena

Eskoriatza Atsedena

## Pilota

• PROFESIONALAK: LAU T'ERDIKO GIPUZKOAKO 1. OPENA

## Elolak eta Antxiak erraz irabazi zituzten partiduak


*Frontis enpresak antolatutako txapelketako bi partidu Arrasateko Uarkapen jokatu ziren atzo*

Jasone Zabala

Lehen partidua Antxiak eta Zabala jokatu zuten. Antxia hasieratik hasi zen partiduan agintzen eta aurkaria menpean hartzen; partiduaren kontrola berea izan zen, eta 10eta 0ko partziala egin zion Zabalarari.

Antxiak, behin eta berriz uzten zizkion txokoan pilotak, eta Zabala ezin zen heldu. Zabala ondo eramaten zituen Antxiaren sakeak, baina ezin zuen tantoa amaitu. Zabala lehen tantua egin zuenean pilota aldatu zuen, baina ordurako Antxiak abantaila nahiko handia zuen markagailuan. Zabala bere pilotarekin joko hobea eginen hasi zen, baina tantoa amaitu ezinik jarraitzen zuen. 4 eta 16 adierazten zuen markagailuak eta ordurako Zabala nekata zegoenez pilota errazetara ez zen heltzen. Azkenean 6 eta 22 Antxiaren alde.

**ELOLA NAGUSI BIGARRENEAN** Bigarren partiduan, Gorriti urdinez eta Elola gorritz izan genituen. Erraz hartu zuen men-



Partidu errazak izan zituzten Elolak eta Antxiak.

dean Elolak Gorriti. Partiduak ez zuen kolorerik izan. Elolak 12 eta 0ko partziala egin zion, eta behin eta berriz txokoan goxogoxo uzten zituen pilotetara ezin

zen Gorriti heldu. Gorritik bi tanto egin zituen bere pilotarekin, baina partidu guztian jaun eta jabe izan zen Elola, eta 22 eta 4 irabazi zuen.

## Mendi Lasterketak

## Debagoiendarrak Abaltzisketan mendi lasterketetako Euskal Selektzioarekin

Asteleheneko Goienkaria

Mendi lasterketen denboraldia hasteko gutxi falta dela aprobetxatuz, eratu berria den Euskal Herriko Mendi Lasterketen Selektzioa, asteburuan, Abaltzisketako aterpetxe batean batu da taldeko giroa sendotu nahian eta entrenamenduak egiteko aprobetxatzeko. Txindoki eta Aralarko parajeak aprobetxatu dituzte gainera entrenamendu saio hauek egiteko.

Selektzioko debagoiendarrak ere bertan izan dira: Joxe Mendiola eta Asier Urdanpilleta oñatiarrak eta Zuhaitz Ezpeleta eta Isa Casado arrasatearrak.



Entrenamendu saio gogorak egin dituzte Abaltzisketan EHMLSkoek.

## Pilota

• 22 URTEZ AZPIKOAK ETA NAGUSIAK

## Bihar, martitzena, hasiko dira jokatzeko X. Bergara Hiria Pilota Txapelketa

*Maiatz hasieran finalerdiak izango dira eta 16an, berriz, final handia*

Jasone Zabala

Bihar, apirilaren 5ean, hasiko da X. Bergara Hiria Pilota Txapelketa. Bergara Kirol Elkarte-ko Pilota sailak antolatzen du, Udalaren eta Kutzaren babesarekin eta bi maila daude: 22 urtez azpikoak eta nagusiak.

22 urtetik beherako txapelketari dagokionez, final-laurdenak jokatu egingo diote txapelketari. 19:30ean izango da Bergarako Udal pilotalekuan, eta zortzi bikotek jardungo dute buruz burukoan. Lehen jardunaldi horretan erabakiko dira finalerdietara pasatuko diren lau bikoteak.

Nagusien mailari dagokionez, horiek ere martitzenean

ekingo diote txapelketari, 19:30ean Udal pilotalekuan, eta lehenengo norgehiagoka horretan final-laurdenetarako sailkatuko diren bikoteak erabakiko dira.

### FINAL HANDIA MAIATZAREN 16AN JOKATUKO DUTE

Finalerdiei dagokionez, bai 22 urtetik beherakoetan zein nagusietan maiatzaren 3an eta 10ean jokatuko dira. Partidu horietan ezagutuko ditugu finalerako sailkatuko diren bikoteak, eta final handia maiatzaren 16an jokatu dute.

Bergara Hiria Pilota Txapelketa beti egon izan da giro ezin hobea, eta iaz ere halaxe izan zen. Iazko txapelketa Etxeberria eta Iza zornotzarrak izan ziren garai- le promes mailan, Olazabal eta Betelu nafarrei irabazi ostean. Amateur mailan berriz, Erroizena hernaniarrak eta Argote zarautzarrak eraman zuten txapela, Igor Gutierrez bergararren eta Huizi usurbildararren kontra irabazi eta gero.



#### Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

#### Elgeta:

- Kioskoa

#### Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

#### Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Maalako okindegia
- Kurruxko okindegia

#### Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

#### Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

#### Leintz Gatzaga:

- Labidea

#### Aramaixo:

- Plazako kioskoa

#### Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibarrri okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

nolako ikasketak,  
halako lana\*

\* **Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak** egindako ikerketaren arabera, **MONDRAGON UNIBERTSITATE**an ikasitako %90,7ak bere ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, batz bestea bi hilabeteren buruan.

**m**  
**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Oñatiko Larrain Gain elkarteak 25. urtemuga ospatzen ari da | 22
- Haur Liburuaren Nazioareto Egunaren barruan hainbat ekitaldi egongo dira gaur ibarrean | 25

Jon Arretxe idazlearen 'Griot' ikuskizuna, hilaren 7an, Bergarako Zabalotegin | 25

**DEF CON DOS TALDEA BERGARAKO JAM ARETOAN**



AINZANE AGIRRE

Def Con Dos taldeak irailean kaleratu zuen *Recargando*, 6. diskoa. Bergaran kantu berriak jo zituzten, baina baita taldea ospetsu egin zuten hainbat abesti ere.

**INDARBERRITUAK** | LAU URTE ISILEAN EGON DEN DEF CON DOS TALDEA BORROKALARI ITZULI DA JARRAITZAILEEN GOZAMENERAKO

## Betiko alerta mezuak ahotan, DCD taldea lehen lerrora itzuli da energiaz

*Gure gizartea gaixorik eta usteldurik ikusten dute baina ez dute, etsi nahi. Def Con Dos taldea berpiztu egin da eta indartsu gainera. Lekuko izan ginen Jam aretoko saioan*

Larraitx Zeberio

Kaosa, inposizioa, ustelkeria eta duintasun eza salatzen dute euren kantuetan. Def Con Dos (DCD) taldea lehen lerroan dugu berriz ere eta lau urtez itzalean egon ondoren indartsu itzuli direla esan genezake zapatu gauean Bergarako Jam aretoan erakutsi zigutenez.

“Gizakia gaixorik dago, gizartea usteldurik, baina ez dugu etsiko”, oihukatu zuten taldeko hiru abeslariak kontzertuko kantu batean. “Bizitza aske batekin egiten dugu amets eta bakean hiltzen ikasi nahi dugu”.

Gaueko 11:30ean azaldu zen Jameko agertokian DCD taldea osatzen duen seikotea. Indartsu aritu ziren hasieratik amaiera-

ra eta denetariko kantuak jo zituzten. *Recargando* azken diskoko abesti berriak aurkeztu zituen bandak, baina baita DCD ezagun egin zuten kantu zaharrak ere. *Alzheimer* eta *Ultramemia* diskoetako kantuak gehien bat, baina baita *Armas pal pueblo* eta *De poca madre* diskoetakoak ere.

### MUGIMENDUA ETA AMORRUA

Materia hirukote urnietarraren ondotik irten ziren DCD taldekoak. Lau urte agertokietatik kanpo eman ondoren itzulerak sortutako ikusmina handia zen.

Hasiera-hasieratik lortu zuen rap metal estiloa egiten duen bandak publikoa bereganatzea. “Inoiz baino biziago gatoz” oihukatu zuten.

### Fitxa teknikoa

#### • TALDEA

Tejeringo (gitarra), Tornado (bateria), J. Al Andalus (baxua), Strawberry (ahotsa), Peón Kurtz (ahotsa), Juanito Sangre (ahotsa).

#### • JENDE KOPURUA

Jam aretoaren edukiera erdia bete zen. Kanpotik etorritako jende asko.

#### • IRAUPENA

DCD banda, bi ordu. Aurretik, Materia taldea aritu zen.

#### • ARGIA ETA SOINUA

Soinua 10.000 watio eta argiak 24.000 watio.

Joan Paulo Aita Santua izan zen César Strawberry abeslariaren obsesioa kontzertu osoan. Ahotan izan zuen behin baino gehiagotan eta ez bereziki bere heriotza deitoratzeko.

*Ultramemia*, *Insonorizate*, *Poco Pan*, *Que no te cojan*, *Ellas denunciaron*, *Fin de siglo*, *El coche no...* eromena izan zen nagusi agertokian behin baino gehiagotan. Eromen hori publikoari kutsatzen jakin zuten bandako kideek. *El Día de la Bestia* eta *Acción Mutante* filmen soinu-bandek ere arrakasta handia izan zuten.

Def Con Dos taldea itzuli egin da. “Itzalen mundutik” esan zuten. Traza guztien arabera zeresan handia emango dute.

• EMANALDIAN IKUSI GENITUENAK




**BEROTZEKO MATERIA TALDEA.** Urnietako hirukoteak zabaldu zuen gaua Jamen. Rock indartsua, azkarr eta zorrotza eskaini zuten ordu bete inguruko emanaldian Alvaro Ramachak (gitarra jotzailea eta ahotsa), Oscar Rodrigok (bateria jotzailea) eta Jon Jauregik (gitarra jotzailea). Ingelesezt kantatzen du metal hard core musika egiten duen talde honek. Euren hiru diskoetako kantuak eskaini zituzten Bergaran, tartean *Forget the Music* azken laneko ahots zein gitarra biziko abestiak.



**PUBLIKOA GUSTURA.** Def Con Dos taldearen kontzertuak jende ugari elkartu zuen Jam aretoan, tartean bandaren jarraitzaile sutsu ugari. Bat baino gehiago ikusi genuen DCD kamisetarekin eta asko ziren bandaren abestiak hasieratik bukaeraraino ezagutzen zituztenak. Kantuan asko egin zen. Seikotea gogo betez aritu zen agertokiaren gainean eta kontzertu amaieran gitarra jotzaileek erabilitako puak bota zituzten jendartera, baita bisera bat edo beste ere. Publikoan neska gutxi ikusi genuen, gehiengoa mutilak ziren.

• HORRELA IKUSI DUTE DEF CON DOS



GORKA ETA ALEX |  
EIBAR

**“Oso zuzeneko ona dute eta indartsu aritu dira hasieratik amaieraraino”**

Bi eibartar gazte hauek Def Con Dos sarritan entzuten dutela esan ziguten. Lehenengo aldiz ikusi dituzte zuzeneko kontzertu batean. “Oso onak dira. Oso indartsu atera dira eta indar hori kontzertuaren amaieraraino mantendu dute. Oso gustura egon gara”. Gorkak *Poco pan y pésimo circo* kantuarekin gozatu zuen. Alexek *Ketchup* abestiarekin.



FERNANDO |  
IRUÑEA

**“Bikain aritu dira. Nire puntuazioa gaurkoan 10 bat”**

“Oraindik gogor egiten duen jendea bada goela ikustea bikaina da. Def Con Dos taldearen jarraitzailea naiz bandaren hasieratik beretik. Betidanik gustatu zaizkit. Nire gaurko puntuazioa, 10 bat”.



IBAN, ALVARO ETA MIKEL | AGURAIN

**“Euren estilo raperoa oso indartsua da eta kantuak oso adierazkorrak. Talde bikaina da Def Con Dos”**

Taldea ondo ikusi zuen Aguraingo hirukote honek eta kontzertuarekin asko gozatu zutela esan ziguten. Mikelek duela lau urte Gasteizen ikusi zituen lehen aldiz. “Gorputz eta arima aritu dira musikariak baina publikoa ere oso ondo ikusi dugu. Dantzan eta kantuan asko eta asko”. Hirukoteak *Pánico* eta *Armas al pueblo* kantuak nabarmendu ditu. “Euren estilo raperoa asko gustatzen zaigu, oso indartsua eta adierazkorra da. Talde bikaina da”.



**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

**EROSKI**  
Grupo Eroski Erosten jakin

## Manex Agirre aramaioarra finalerako sailkatu da

Larraitz Zeberio

Zapatuan, hilaren 9an, jokatu da Gasteizko Jesus Guridi Auditorioan Arabako bertsolari txapelketako finala. Manex Agirre aramaioarra bertan izango da.

Iñaki Viñaspre, Oihane Perea, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi eta Asier Otamendirekin batera jardungo du. "Aurrekoetan baino lasaiago ikusten dut nire burua", esan digu Granadatik Manexek. "Hemen egonda ezin dut txapelketa behar den moduan prestatu eta aurtengoan ez daukat beste munduko helbururik. Presioa ere ez da hainbestekoa".

Finalaurrekoan ondo ikusi zuten bere burua. "Gauza on eta txarrekin, baina ondo aritu nintzela uste dut. Besteak baino gutxiago prestatu dut txapelketa aurtan eta ez nabil aurreko urtetan bezain sartuta". Asier Otamendi da iazko txapelketa eta askorendako aurtengo favoritoa.

Finala 17:30ean jokatu da. Lehen bi sailkatuak Euskal Herriko bertsolari txapelketarako sailkatuko dira.



Manex Agirre bertsolari aramaioarra.



OÑATI | LARRAIN GAIN ELKARTEA 25. URTEURRENAREN OSPAKIZUN EKITALDIETAN MURGILDUTA

## Joxe Agirre eta Jexux Mari Irazurekin bertso afari atsegina egin zuten mahaiaren inguruan elkartutako 60 lagunek

*Datozen hilabeteetan hitzaldiak, gau musikala, San Isidro eguneko azoka, irteerak eta txapelketak egingo dituzte*

Larraitz Zeberio

Goizeko 01:30ak arte luzatu zen egubakoitzean Larrain Gain elkarteko bertso afaria. Oñatiko elkarte bere 25. urteurrena ospatzen ari da aurtan eta hainbat ekitaldi antolatu ditu abendura bitartean.

Iluntzeko 21:00etarako gertu zen afaria Larrain Gainen. Lan fina egin zuten elkarteko komisioko kideek. Berakatz-zopa, biri-

bilkia saltsan eta pastela izozkiarekin. Mahaiaren inguruan 60 bat lagun batu ziren, erdiak elkarteko bazkideak. Aukeran gutxi samar antolatzaileen iritziz.

Ondotik etorri ziren Agirre eta Irazuren bertsoak. Gai jartzaille lanetan Oñatiko bertso eskolako kide bat aritu zen eta gaurkotasun handiko gaiekin zirrikatu zituen. Giroa ezin hobea izan zen eta bertsolariak ez zuten aspertzeko tarterik utzi.

### Hurrengoak

#### APIRILAK 7

• 19:00: Mahai ingurua txirringarritari buruz.

#### MAIATZAK 13

• 19:00: hitzaldia Jakion enpresako Susana Aiaituiren eskutik.

#### MAIATZAK 14

• 9:00: San Isidro feria.

#### EKAINAK 4

• 22:00: Gau musikala.

### EGITARAU MAMITSUA

Elkarteko bazkideak lanean dihardute urteurren ekitaldiak antolatzen. Maiatzaren 14rako auzo feria antolatu dute. "Oso feria berezia izango da, auzoko baserritarrak izango dira eta protagonista bakarrik", azaldu digu elkarteko Jose Luis Agirrek.

Ekainaren 4ko gau musikala ere oso berezia izango da. Juan Karlos Irizar piano jotzailea eta Karmelo Mendizabal soinu jotzailea arituko dira. Bazkide nagusiek kontatutako istorioekin bertsoak idatzi ditu Iñaki Olalde. Juan Karlos Irizarrek, berriz, doinu bat asmatu du bertso hauendako. Gau musikalean entzungo dira.



BERGARAKO GAZTETXEA | GATO APLASTADOK KONTZERTUA EGIN ZUEN

Zapatuan Toksiko izeneko fanzinea aurkeztu zuten Bergarako gaztetxean. Horretarako kontzertua ere antolatu zuten: Gato aplastado eta Byfidus taldeek jarri zioten musika gauari. Bestalde, bihar, martitzena beste kontzertu bat egongo da gaztetxean. Arrasateko Kañeria 13 taldeak egingo du emanaldia, 19:00etan. Gaztetxetik adierazi dutenez, "egun berezi xamarra da kontzertua egiteko, baina taldekoak Ingalaterrara doaz eta biharko emanaldia entsegu moduan erabiliko dute". | A.G.



PUNK KONTZERTUA | ONE WAY SYSTEM TALDE MITIKOA 3.60 ARETOAN

Arrasateko 3.60 aretoa jendez lepo egon zen bariku gauean. Punk kontzertua zegoen iragarrita. Etxeko taldeek berotu zuten giroa hasieran; Special Crew eta Ardi galduak hain zuzen ere. Gogor aritu ziren jarraitzaileen aurrean.

Gaueko talde nagusia, ordea, One Way System banda ingelesa izan zen. Nazioarteko punk zirkuituan talde garrantzitsuenetarikoa dugu gaur egun oraindik ere. Bi kontzertu eman ditu Estatuan. Bata, 3.60 aretoan eta bestea, Bartzelonan. | L.Z.

Apirilak 4a: 037 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 4, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

### BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**. (Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat)

- Alberto Pereda (Arrasate)

**IPUIN KLASIKOAK** umeendako liburua

- Etor Laskurain (Osintxu)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Rufina Aranburu Gorostidi (Oñati)
- Maitane Lete (Antzuola)

### Apirilak 11ko sariak

- Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta. (Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat)
- **ISTILU** etxeko neskendako bi kamiseta



**EIBAR-XEREZ** futbol partidua ikusteko sei sarrera.  
(Saridun bakoitzarendako bi)



Euskararen kalitatearen gaineko berbaldia egin zuen Andoni Egañak Bergaran. Aranzadi ikastolak antolatutako Kultura Astearen barruan izan zen berbaldia, Aste

Santu aurretik. Kike Amonarrizekin eta Joxerra Garziarekin batera egin du Egañak euskararen kalitatearen gaineko txostena, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku

Batzordeak eskatuta. Gogor kritikatu zuen Andonik Hezkuntza sistema; zuzentasunari garrantzi handia, baina, egokitasuna alde batera lagata dutela adierazi zuen.

ANDONI EGAÑA | EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO KIDEA

# “Erabilerarekin lortzen da kalitatea euskararen eta edozein hizkuntzatan”

Aintzane Irizar

**Euskararen kalitatearen gaineko txostena egin duzu Kike Amonarrizekin eta Joxerra Garziarekin batera. Zelatan?**

Euskararen Aholku Batzordeko partaide gara Kike eta biok; euskararen kalitatearen gaineko kezka sortu zen batzorde horretan eta Kikeri eta bioi enkargatu ziguten lan hori. Joxerra Garziari deitu genion guk, lan horretan laguntzeko. Lan teoriko bat da; kalitatearen gainean zer ulertzen dugun guk, azkeneko hamar urteotan hainbat autorek zer idatzi duten, egoera soziolinguistikoaren azterketa bat eta gauza berriena da, bukaeran, lan proposamen ildo batzuk egin ditugula.

**Kalitatearen kontzeptua hizkuntzara zela eramaten da?**

Erabilerarekin lortzen da kalitatea edozein hizkuntzatan. Hizkuntzak kalitate handiagoa izango du zenbat eta erabiltzaile gehiago izan eta erabiltzaile horiek zenbat eta gehiago erabili hizkuntza hori; horretan aitzoraren kontrakoa delako mingaina: aitzoraren zenbat eta gehiago erabili kamustu egiten da; mingaina, berriz, zenbat eta gehiago erabili, zorroztu egiten da. Gure kalitatearen ikuspegia ez da lau elitistaren ikuspegia; da masa kritikoa bat, orain lortzen ari garena, baina, esan indar handiagoz eta sarriago komunikatuz.

**Beharbada, kantitateari garrantzi handiagoa eman diegu?**

Bai, eta hori normala da; azkeneko berrogei urtetan hori egin dugu. Baina guk esaten duguna da garaia iritsi dela kalitateari gehiago erreparatzeko. Gainera, uste dugu kantitatea kalitateak erabakiko duela hemendik aurrera; hau da, inork ez duela euskaraz hitz egingo, besterik gabe. Jendeak hitz egingo du euskaraz tresna hori baliagarri sentitzen duen neurrian. Eta hori da kalitatea, tresna hori, hizkuntza, baliagarri sentitzea, alegia. Inork ez du hitz egin


go euskaraz abertzalea delako, adibidez, edo lanpostu bat lortzeko beharrezkoa delako. Euskara jakin edo ikasi, beharbada, bai, baina euskaraz hitz egiteko arrazoiak ezin dira horiek izan. Hemendik aurrera motibazioa kantitatean hazteko izango da bakoitzak sentitzea ondoen euskaraz konbentzitzen duela, ondoen euskaraz komunikatzen duela...

**Euskararen hiru maila bereizten dituzue: zuzena, jatorra eta egokia. Zuek egokitasuna aldarrikatzen duzue; zer da hori?**

Hizkuntza egokia da bere helburua lortzeko egokia den hizkuntza. Eta hori definitzen da ez hizkuntzaren edo hiztunaren baitako parametroetan, baizik eta kanpokoetan. Adibidez, nik hitz egin dezaket oso ondo, oso zuzen, hizkuntzaren arauak errespetatuta, baina, gaztetxe baten berbaldi bat emateko oso hizlari txarra izan. Gaztetxe baten ez baldin badut asmatzen hango hizkuntza moduan egiten eta hasten baldin badut hitzaldia “Jaun-andreok, arratsaldeon” esanez, bada, ez dut asmatuko. Esan dezagun, behin-goz, hori ez dela hiztun egokia; zuzena, bai, izan daiteke, baina, gaztetxe baten ez badaki, gutxi gora behera, euren erregistroan hitz egiten, ez da hiztun egokia izango. Baina, alderantziz ere bai; euska-

**“Kalitatea da tresna bat, hizkuntza bat, euskara, kasu honetan, baliagarri sentitzea”**

**“Nor bere arloan hiztun ona baldin bada, orduan arrakasta handiagoa izango du”**



DBHko ikasleak izan zituen entzule Andoni Egañak Bergaran egindako hitzaldian.

ra ikasten dihardutenei komplexuak kendu behar dizkiegu eta esan behar diegu: “Zuek egiten duzuen euskara egokia da”; albigategiak aurkezteko, beharbada, ez, baina, bestela, oso egokia da. Egokitasuna neurtzeko kontuan hartu behar dugu nork hitz egiten

**“Egokitasuna neurtzeko kontuan hartu behar dugu nork, nori eta non hitz egiten duen”**

**“Dauzkagun komunikabide nazionalak ez ditugu behar adina aprobetxatzen”**

duen, nori hitz egiten dion, non eta zein gairen gainean.

**Hezkuntza sistema kritikatu egiten duzue. Zerk huts egiten du?**

Eskoletan garrantzia handia ematen zaio zuzentasunari eta idatzi-koari eta ez hainbeste ahoz-kotasunari. Bestalde, simulazio gutxi egiten da eta disimulatu, berriz, asko. Simulazioa da gero gertatuko den zerbaiterako prestatzea. Helduen eskolak lehenago konturatu ziren horretaz, euren helburua delako ikasleek hizkuntza ikastea eta ez dira edukietan sartzen. Eskolen lana ez da erraza; izan ere, edukiak transmititu behar dituzte eta gainera, eduki horiek modu adierazkorrean esan ditzaten irakatsi. Edukietan asko zentratu dira eta atera ditugu bere proiektua zertan den azaldu ezin duten ingeniariak, partidua zela joan den azaltzeko gai ez diren futbol jokalariek... Nor bere arloan hiztun ona baldin bada, arrakasta handiagoa izango du.

**Komunikabideok ere badugu gure ardura, ezta?**

Bai, noski; gainera, dauzkagun komunikabide nazionalak ez ditugu behar adina aprobetxatzen. 700.000 hiztun izateko komunikabide dezente daukagu, eta hor, batez ere, landu behar dugu hizkuntza estandarra.

Esan behar da, bestetik, komunikabideek dena berdintzeko joera dutela, dena berdinean esatekoa eta hori gertatzen denean, hizkuntzaren gustua galdu egiten da. Dena bakan esan behar da, gauza bakoitza tokatzen zaion moduan. Alde horretatik, herrietako aldizkariak arnas berri bat dira.

**Teknologia berriek izan dute eraginik?**

Bai, gaztetxoengan, batez ere; eragina izan dute, bereziki, umeek daukaten denbora gutxia teknologia berriei eskaintzen dietelako eta ez hainbeste kalera irteari, harremanak izateari eta hizkuntza erabiltzeari.



## Bergara Hiria argazki lehiaketak 1.080 euro banatuko ditu saritan

*Bi kategoria deitu dituzte, zuri-beltzeko argazkiarena eta koloretakoena, eta bakoitzean 540 euro emango dituzte lau saritan*

Leire Kortabarria

Bergara Hiria argazki lehiaketa deitu du Pol-Pol argazki taldeak, Bergarako Udalaren laguntzarekin. 21. aldia du aurtentzen eta, urtero bezala, sari asko banatuko dituzte: bi kategoria izango dira, zuri-beltzeko argazkiak eta koloretakoak, eta saile bakoitzean 540 euro emango dituzte saritan, honela banatuta: sari nagusia, 180 euro; bigarrena, 150; hirugarrena, 120; eta Bergarako onena, 90. Saridunek Santi Arrietaren argitaratu gabeko zeramika lan bana jasoko dute garaikur moduan.

Euskadin bizi den edozeinek parte har dezake. Gaia, tek-

nika eta prozedura libreak dira. Zuri-beltzeko edo koloretako lanak, mota bakoitzetik lau aurkez daitezke, gehienez ere, eta presentazio aldetik, 30 x 40 cm-ko kartulinatan aurkeztu behar dira, baina argazkiaren beraren tamaina librea da. Atzealdean, egilearen datuak ipini behar dira.

Lanak Bergarako Udaltxerara ekarri edo kultura etxera bidali behar dira posta zertifikatuz. Horretarako mugaeguna maiatzaren 4a da. Argibide gehiagorako, 943 76 30 90 telefonora deitu behar da.

### KAMISETEN DISEINUA

Zabalik jarraitzen du beste sormen lehiaketa baten esku hartzeko epeak; Oñati-Arrasate herri lasterketako kamiseten diseinua aukeratzeko sariketakoak, alegia. Oñatiko Laixan elkarteak deitu du, eta euren bulegora bidali behar dira lanak apirilaren 15a baino lehen. Gehienez bi koloretan egindako marrazkiak onartuko dituzte, eta bi lelo gehituko dizkiote. Irabazleak 150 euro jasoko ditu sari moduan.

## Labur

### Bidaia diaporama egingo du Josu Iztuetak bihar, martitzena, Arrasaten

Tolosatik Kenyako hiriburura, Nairobira, abiatu zen talde bat 1980an; tartean, Josu Iztueta. Hiru hilabetez Afrikan barrena ibili ziren autobus hartan. Bidaia ez zen han amaitu: Afrikatik berriro Europara, handik Kanadara... ibili ziren. Abentura horien berri emango du Josu Iztuetak bihar, martitzena, Arrasateko Monterron jauregian, 19:00etan, *Nairobiarra, milioi bat kilometro lurrazaletik* diaporamaren bidez. AEDK antolatutako ekintza da, Kultur Errotaren eskutik.

### Paco Ibañez kantautorearen kontzerturako sarrerak salgai daude

Paco Ibañezek Eskoriatzan joko du hilaren 16an, eta sarrerak salgai daude 12 eurotan honako lekuetan: Eskoriatzako Mirentxu eta Dorletan eta kiroldegian, Oñatiko turismo bulegoan, Arrasateko Hiren, Aretxabaletako Arlutz tabernan eta Bergarako Bilintxen.



### Hiru eguneko perkusio afrikar ikastaroa antolatu du Jardunek

Bergarako Jardun euskara elkarteak perkusio afrikar ikastaroa antolatu du. Apirilaren 22an eta 29an eta maiatzaren 6an izango dira eskolak Arrizuriagan, 18:30etik 20:30era. Izena emateko epea zabalik dago apirilaren 18ra bitartean. Jarduneko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 25. Matrikulatzeko, Jardunen bulegora jo behar duzue, kultura etxean, edo 943 76 36 61 telefonora deitu edo [gaztejardun@topagunea.com](mailto:gaztejardun@topagunea.com) helbide elektronikora mezu bat bidali.

## Hitzorduk



### LIBURUAREN ETA HAUR LIBURUAREN EGUNETAKO EKINTZAK |

Bi txotxongilo saio eta argazki erakusketa bat izango dira liburutegi banatan

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da apirilaren 2a, eta gertu dugu baita Liburuaren Eguna ere. Hori dela eta, zenbait ekintza antolatu dituzte ibarrek liburutegiek. Gaur, astelehena, *Eman eta gero* txotxongilo saioa egingo dute Eskoriatzan, 18:00etan, 4-10 urte bitarteko umeendako; etzi,

eguztzena, *Lau anaia umezurtzak* saioa izango da Aretxabaletan, 18:00etan, txotxongiloa hori ere.

Bestalde, Arrasateko liburutegian, *El placer de leer* argazki erakusketa ikusteko aukera dago, eta liburu azoka zabalduko dute Seber Altuben hilaren 8an.

### ZINEMA |

• *Hotel Rwanda* filma emango dute gaur, astelehena Arrasateko Amaia antzokian emango dute film hori 20:30ean. Gaur ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *Blade Trinity*, Oñatiko zinema emanaldia Gaur, astelehena izango da film hori, kultura etxean, 19:30ean.

• *Mar adentro* filmaren emanaldia izango da Elgetan Etzi, eguztzena, emango dute film hori Espaloia kafe antzokian, 21:30ean.

• *El secreto de Vera Drake*, Arrasateko zineklub saioan Eguenean, hilak 7, emango dute film hori Amaia udal antzokian, 20:30ean. 4 euro da sarrera.

• *Elephant*, Oñatiko zineklub saioan Eguenean, hilak 7, emango dute film hori kultura etxean, 20:00etan. 4 euro da sarreera.

### TURISMOA |

• Bergarako turismo bulegoa, Aste Santuko denboraldian Aste Santuko denboraldiak apirilaren 17ra bitartean irauten du. Epe tarte horretan, honako ordutegia izango du bulegoak: astelehenetik zaptura, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30; domeka eta jaiegunetan, 11:30-14:30. Hilaren 10ean itxita egongo da.

### DEIAK |

• *Arantzazuk Ameriketan izan duen eraginaren berri* Arantzazuk Ameriketan izan duen eraginaren gaineko *Las huellas de Aránzazu en América* izeneko liburua kaleratu du Eusko Ikaskuntzak. Salgai dago Arantzazun, Oñatiko Turismo Bulegoan eta [www.euskoikaskuntza.org](http://www.euskoikaskuntza.org) webgunean, 8 eurotan.

### IKASTAROAK |

• *Hainbat Internet ikastaro dago aukeran Oñatin* Oñatiko KZGuneak hainbat Internet ikastaro antolatu ditu apirilerako: besteak beste, enpresa webguneak, postalak bidaltzea, foroak eta FAQ-ak, mikologia, Outlook Express programa, lana bilatzea... gaiak landuko dituzte. Ohiko oinarriko Internet ikastaroa ere emango dute. Izenematea zabalik dago KZGunean edo 943 71 83 20 telefonora deituta.

### LEHIAKETAK |

• *Gomendatzen Dizut...* lehiaketa, zabalik bi herritan Arrasate eta Bergarako gazte informazio bulegoek deitu dute lehiaketa hori, Aste Santuko oportetako gomendioak batzeko. Hilaren 22a da mugaeguna. Internetez ere parte hartu daiteke [www.bergara.es/Udala/Antolaketa/Kultura/Info\\_gazte](http://www.bergara.es/Udala/Antolaketa/Kultura/Info_gazte) edo [\[gon.org/News/1109234906\]\(http://gon.org/News/1109234906\) webguneetan. Landetxe baten egonaldia zozkatuko dute.](http://www.arrasate-mondra-</a></p></div><div data-bbox=)

• *Mendekoste jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa* Mendekoste jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Bergarako Udalak. Bergaran bizi edo errolatuta dagoen edozeinek parte har dezake. Horretarako, 46 x 61 cm-ko kartel bertikalak aurkeztu behar dira. Nahitaezko testua da *Pentekoste Jaiak 2005 Bergara*. Irabazleak 600 euro sakelaratuko ditu.

### MUSIKA |

• *Zona Urbana hip hop jaialdirako sarrerak* Bergarako Jam aretoan egingo dute jaialdi hori hilaren 8an eta 9an, eta sarrerak honako lekuetan egongo dira alde zurrerako salmentan: Bergaran, Jam aretoan bertan eta Etxagi tabernan; eta Arrasaten, Lazkano musika-dendan.

### HITZALDIA |

• *Jon Arretxeren 'Griot' ikuskizuna Bergaran* Burkina Faso bizikleta gainean zeharkatu zituenekoak azalduko ditu Arretxek hainbat argazkiren laguntzarekin. Eguenean, hilaren 7an, izango da, Zabalotegi aretoan, 19:00etan. Jardun Euskara elkarteak antolatu du.

**Zorion agurrak**



ARRASATE  
**Bitxori Belaustegi**  
Martxoaren 27an urtebetetzea. Zorionak Jon eta Julenen partez.



ARRASATE  
**Bakarne Ibaibariaga**  
Martxoaren 30ean, 33 urte. Zorionak! Julen eta Jonen.



ARRASATE  
**Jose Fernandez**  
Apirilaren 3an urtebetetzea. Urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA  
**Jon Etxeberria**  
Martxoaren 19an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Antonio Sierra**  
Apirilaren 4n, 56 urte. Zorionak eta urte askotarako! Seme-alabak.




BERGARA  
**Nagore Pelicano**  
Apirilaren 5ean, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Celestina Garitano**  
Apirilaren 6an, 77 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Malen Mondragon**  
Apirilaren 7an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



BERGARA  
**Leire Ugalde**  
Apirilaren 7an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Oskar eta Naia Perez**  
Apirilaren 11an, 8 urte eta apirilaren 7ean, 2 urte beteko dituzuelako. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasa eta muxu handi bana. Familia osoaren partez.



ARETXABALETA  
**Nora Ugalde**  
Apirilaren 1ean, 3 urte. Zorionak! Osaba-izeba eta bereziki Maitane.



ESKORIATZA  
**Unai Etxebarria**  
Apirilaren 4an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



ANTZUOLA  
**Karmen Irizar**  
Apirilaren 4an. Zorionak etxekoen partez; Onintzaren besarka bat.



ELGETA  
**Nerea Sarasua**  
Martxoaren 30ean, 25 urte. Zorionak eta urte askotarako! Txoritxo bat.



ELGETA  
**Olatz Olaortua**  
Martxoaren 31n, 14 urte. Zorionak eta urte askotarako! Iñaki.



ELGETA  
**Enrike Morales**  
Martxoaren 31n, urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



ELGETA  
**Ainara Iribar**  
Apirilaren 2an, urteak. Zorionak eta urte askotarako! Lagunak.

**Jaiotakoak**



**Zuriñe Arquiño Gonzalez**  
Gasteiz • 3,010 Kg.  
Martxoak 8. Gurasoak: Eduardo (Yecora, Araba) eta Feli (Arrasate). Argazkian: Izeba Monikaren besoetan.



**Iker Arnaiz Gomez**  
Arrasate • 3,160 Kg.  
Martxoak 22. Gurasoak: Pedro Mari (Arrasate) eta Conchi (Elorrio). Argazkian: Iker ama eta izekorekin.



**Kevin Cabrera Fuentes**  
Arrasate • 3,990 Kg.  
Martxoak 23. Gurasoak: Alberto (Arrasate) eta Veronica (Eibar). Argazkian: Kevin gurasoekin.



**Irati Hernandez Iturbe**  
Arrasate • 3,540 Kg.  
Martxoak 27. Gurasoak: Jose Gabriel eta Susana (Arrasate). Argazkian: Irati amaren besoetan.



**Saioa Plata Colinas**  
Bergara • 3,000 Kg.  
Martxoak 28. Gurasoak: Jesus Mari (Soraluze) eta Monika (Bergara). Argazkian: Etxeko guztiak



**Kiara Dorrnsoro Lete**  
Arrasate • 3,680 Kg.  
Apirilak 1. Gurasoak: Igor (Orio) eta Maider (Arrasate). Argazkian: Kiara aitaren besoetan.



**Hiba Urtetxe Gartzia**  
Arrasate • 2,390 Kg.  
Apirilak 2. Gurasoak: Javier eta Lourdes (Arrasate). Argazkian: Hiba aitaren besoetan.



**Larraitz Perez Gorosabel**  
Gatzaga • 3,500 Kg.  
Apirilak 2. Gurasoak: Joxe eta Aitziber (Gatzaga). Argazkian: Larraitz aitaren besoetan.



**Julen Galiacho Ot**  
Bergara • 3,110 Kg. Apirilak 2. Gurasoak: Luis Oscar (Errenteria) eta Ana Maria (Bergara). Argazkian: Julen bapo lo.



**Maider Barbero Chevez**  
Arrasate • 3,000 Kg.  
Apirilak 2. Gurasoak: Luis Migel (Arrasate) eta Paque (Cadiz). Argazkian: Maider bapo lo.

**Hildakoak**

- Pilar Leturia Gallastegi**  
Arrasate, martxoaren 24an. 89 urte.
- Victorio Elkoro Uberruaga**  
Bergara, martxoaren 31n.
- Maite Mujika Berbelzu**  
Bergara, martxoaren 31n.
- Jose Mari Unamuno Larrañaga**  
Bergara, apirilaren 1ean. 54 urte.
- Rafael Hers Carvajal**  
Bergara, apirilaren 1ean. 67 urte.
- Carmen Lamarain Iturriaga**  
Arrasate, apirilaren 1ean. 94 urte.
- Jose Ramon San Miguel Egiluz**  
Arrasate, apirilaren 2an. 83 urte.
- Rafaela Etxaurre Zeziaga**  
Arrasate, apirilaren 2an. 99 urte.
- Maria Jesus Azkune Uranga**  
Oñati, apirilaren 2an.
- Teofilo Santa Cristina Frias**  
Arrasate, apirilaren 2an. 72 urte.

**ESKELAK**  
ASTELEHENEKO  
GOIENKARIAN  
82 euro  
943 76 92 71

**sms mezuzak**

- Zorionak, Etxezuri! Herenegungo partez, jakina! Urte askotarako zu aspaldiko lagun baten partez! Muxu asko eta zenbat? 32 tirakada? Askotxo ala?
- Gaizka, zuri be zorionak, aspaldiko lagun honen partez! Ondo ospatu ziñuan 33.a?
- Etxezuri, zorionak eta mxuak. Gonbitea noiz?
- Gaiz, hurrengo kafia zure kontu, ados?
- Aita Santua hil da! Badaezpada!
- Aurrez eta ez ahazteko, zorionak Monika eta urte askotarako!
- Erreal! Hola, hola mutilak! Aupa Real!
- Osasuna eta Athleticen zaleengatik sentitzen dot, baina aupa Real!
- Periko! Realak irabazi dau eta afaria zure kontu. Barikuaan, 8retan, gasolindegian!
- Moñoña, noizko gure artekoa? Hoztn hasita nago.
- ZP, SM, BM... hainbeste sigla ta gu smsak osorik idazten!
- Neska katxarro bat naiz eta lagunak egin nahi ditut. Bidali SMSa 'katxarro' berbarekin.
- Mutil gazte eta dibertigarriak, harremanak izan nahi ditu mutilekin. Bidali mezua 7744ra.
- Neska-mutil koadrila maja batek Arrasate eta inguruko gazteak ezagutu nahi ditu. 19-22 urte artekoak. Bidali mezua 7744ra.



Baita SMS bidez ere!

**Bidali mezua: gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.**

**Hurrengo Asteleheneko Goienkaria-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...**

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

**Misioetako lana eta 'Los Lunnies' hizpide**

Juan Kruz Juaristi Gipuzkoako Elizbarrutiko misioetako arduradunarekin jardungo dute 10:10ean. Besteak beste, misiolarien lanaz jardungo dute irratiko lagunek. Horrekin batera, 10:40ean, Nartxi Azkargorta bergararrak Los Lunnies saioan egiten duen lanaren berri emango du.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Udaberriko programazioa' | 10:00

**Asteburuak eman duenari errepasoa**

Oporralditik bueltan irratsaioari eutsiko diote berriez Oñati irratian. Oporraldiak zein asteburuak eman dituenak landuko dituzte programazioan. Agenda kontuak ere izango dituzte hizpide irratiko kazetariak.

**Loiola Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00-13:00

**Arrasateko erroldaren beherakada aztergai**

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

**Patxi Salaberri NUPeko irakasleari elkarrizketa**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

Bulevar | 09:30

**Hauteskundeak: Begoña Errastiri elkarrizketa**

**Gaur telebistan**

**GOITB**



**Asteburuko eta gaurko albiste garantzitsuenak 14:15 eta 20:00**  
Egurdian Gorka Etxabek aurkeztuta eta iluntzean Deiane Arrietak ibarreko albisterik nabarmenenak.

**13:45** Emisio hasiera.  
**13:50** Marrazki bizidunak: *Sherezaderen kapitulu berriak*.  
**14:10** Marrazki bizidunak: *Lazkao Txiki*ren kapitulu berriak.  
**14:15** *Berriak*. Gorka Etxabek gidatutako albistegia.  
**14:30** *Ilunpean*. Javier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektoreari elkarrizketa zabalda egin zion Oihana Elorzak.  
**15:00** *Gure lanbide zaharrak*.  
**15:30** *Berriak*.

**15:45** *Klip@*. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. Hainbat musika estilo.  
**19:30** Emisio hasiera.  
**19:35** *Gaurkoak*.  
**19:45** *Klip@*.  
**20:00** *Berriak*. Deiane Arrieta kazetariak aurkeztutako albistegia.  
**20:30** Marrazki bizidunak.  
**21:00** *Harmailatik*. Kirolen gaineko saioa.  
**21:30** Añamendietan.  
**22:00** Albistegia.  
**22:30** Añamendietan.  
**23:00** Erakusleio.  
**23:30** *Gaurkoak*.  
**23:45** Emisio amaiera.

**ETB 1**



**Euskal Herriko Itzulia 2005 hasiko da 14:15 eta 20:00**  
Euskal Herriko Itzulia hasiko da gaur, astelehena. Hori horrela, egunero tartea egingo dio ETBk itzuliari.

**06:55** Tik Tak circus.  
**07:25** Betizu.  
**09:15** E-klipse@.  
**09:40** Travel notes.  
**10:05** Elkartasunaren bideak.  
**10:35** Dokumentala.  
**11:05** Kalahariko ezti azkonarrak.  
**12:00** Bertatik bertara.  
**12:30** Hitzetik Hertzera.  
**13:10** Barne barnetik.  
**13:35** Betizu.  
**14:00** Gaur egun 1. Maribel Aizarna eta Joseba Iriondorekin.  
**14:40** Postdata.  
**14:45** Eguraldia.  
**14:50** Hasiberriak. *Triste bizi naiz eta...*  
**15:15** Gag gag.  
**15:30** Euskal Herriko Itzulia 2005.  
**17:35** E-klipse@.  
**18:00** Iparraldearen orena.  
**18:05** Betizu.  
**20:20** Eguraldia.  
**20:28** Gaur egun.  
**21:05** Bertatik bertara.  
**21:45** Goenkale.  
**22:20** Ze kosmopolita.  
**23:55** Ero eta bero.  
**00:30** Euskal Herriko Itzulia 2005.  
**00:50** Postdata.  
**01:20** Egi bidean.  
**01:30** Bakarrik edo...  
**03:30** Bertatik bertara.

**ETB 2**



**Herritarren kontuak, 'Pasalo' saioan 16:00**  
Adela Gonzalezek eta Iñaki Lopezek egiten duten Pasalo saioan, gertuko albisteak lan-tzen dituzte.

**07:00** Del país de los vascos.  
**07:35** Rutas de solidaridad. *Congo: arreglatelas como puedas*.  
**08:05** Embrujada.  
**09:00** Forum.  
**09:30** El punto.  
**10:10** Matrimonio con hijos.  
**11:10** Stargate: *Pro-meteo*.  
**12:10** Se ha escrito un crimen. *Si el marco encaja*.  
**13:55** Date el bote. Carlos Soberarekin.  
**14:58** Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.  
**15:55** Eguraldia. Ana Urrutiarekin.  
**16:00** Pásalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin.  
**18:25** Siempre cine. Zehaztu bariko filma.  
**20:20** Esta es mi gente. Claudio Landarekin.  
**20:58** Teleberri 2. Julio Ibarrekin.  
**21:50** Eguraldia.  
**21:55** El conquistador del fin del mundo.  
**00:05** Documental.  
**01:10** La zona muerta. *Acontecimientos precipitados* eta *Cicatrices*.  
**02:45** Esta es mi gente. Claudio Landak aurkeztutako programa.  
**03:20** Date el bote.  
**04:25** Pásalo. Adela Gonzalezekin.

**TVE 1**



**'Ana y los siete' telesailaren kapitulu berria 22:00**  
Umeak kezkatuta daude Ana galtzeko arriskuan daudelako. Brunoren anaia gazteena ere ezagutuko dute.

**06:00** Canal 24 horas.  
**07:00** Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.  
**09:00** Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.  
**10:15** Saber vivir.  
**11:15** Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.  
**14:00** Informativo territorial.  
**14:30** Corazón de invierno. Txutxu-mutuengaineko saioa Anne Igartibururekin.  
**15:00** Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.  
**15:50** Diez líneas de El Quijote.  
**15:55** El tiempo.  
**16:00** Amor real. Telesnobela berria.  
**17:30** Obsesión.  
**18:30** Cuéntame cómo pasó. *Secretos y mentiras*.  
**20:00** Diez líneas de El Quijote.  
**20:05** Gente.  
**21:00** Telediario 2.  
**21:55** El tiempo.  
**22:00** Ana y los siete: *Derrepente un extraño*.  
**23:50** 59 segundos.  
**01:30** Telediario 3.  
**02:00** Siete días.  
**03:30** Canal 24 horas.

**La 2**



**'Los Lunnies', gaztetxoendako aproposa 13:00**  
Los Lunnis programan marrazki bizidunak eta umeei zuzendutako bestelako saioak ematen dituzte.

**07:15** That's english.  
**07:30** Los Lunnis. *El pájaro loco* *Abenturas en pañales* eta *Tweenies*.  
**09:30** Aquí hay trabajo.  
**10:00** TV educativa: la aventura del saber.  
**11:00** La botica de la abuela.  
**11:15** España es.  
**13:00** Los Lunnis. *Arthur*, *Los Lunnis* eta *Los minimonstruos*.  
**15:15** Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.  
**15:45** Grandes documentales. *Mundo natural*.  
**16:45** Ciclismo. Euskal Herriko Itzulia.  
**17:30** Los Lunnis.  
**19:15** Padres en apuros.  
**19:30** Pueblo de Dios. *En el corazón de Orduña*.  
**20:00** Informativo territorial.  
**20:30** UEFA Champions League.  
**21:00** Vivir con Mr. Cooper.  
**21:30** Miradas 2.  
**21:55** Sorteo de la Bonoloto.  
**22:00** La 2. Noticias.  
**22:30** El tiempo.  
**22:35** En portada. *Primavera uruguaya*.  
**00:30** Metrópolis.  
**01:00** Los conciertos de Radio-3.  
**01:30** A ciencia cierta.

**Antena 3**



**'El Diario de Bridget Jones' filma 21:45**  
Renée Zellweger eta Hugh Grant aktoreak protagonista dituen komedia ezaguna emango dute.

**06:00** Las noticias de la mañana.  
**09:00** Ruedo Ibérico.  
**11:00** Cada día.  
**14:00** Los Simpson. *Tiene derecho a permanecer muerto* eta *El suspenso del perro de Bart*.  
**15:00** Noticias 1.  
**15:45** La buena onda de la tarde.  
**18:00** Números locos.  
**19:00** El diario de Patricia. Herritarren testigantza bitxiez osatutako programa. Patricia Gaztañagarekin.  
**20:15** Pasapalabra. Lehiaketa. Gonbidatuak: Poli Rincon, Emilio Oliva, Arantxa Bonete eta Kira Miro.  
**21:00** Noticias 2. Matias Prats eta J.J. Santosekin. ONCEn sariketa emango dute.  
**21:45** El peliulón. *El diario de Briget Jones*. Zuzendaria: Sharon Maguire. Protagonistak: Rennée Zellweger eta Hugh Grant. Komedia da. Jones 30 urte-rik gorako neska da eta bere bizitza hobetzeko sakrifizioak egiteko prest dago.  
**00:15** días, 7 noches. Teresa Viejorekin.  
**02:00** Noticias 3.  
**02:25** Televenta.  
**05:00** Astean emandako hainbat saio bereziren errepikapenak.

**Tele 5**



**'CSI Miami: Grissom contra el volcán' 22:00**  
Abeslari famatu baten emaztea nork hil duen ikertzen jardungo dute Grissomek eta haren lagunek.

**06:30** Informativos Telecinco. Matinal.  
**09:10** La mirada crítica. Vicente Vallesek.  
**10:45** El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.  
**14:30** Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrarekin.  
**15:30** Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.  
**16:30** La casa de tu vida. Laburpena.  
**17:00** A tu lado. Emma García eta Felix Alvarezekin.  
**19:35** Alla tú. Jesus Vazquezekin.  
**20:30** Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustín Hernandez.  
**21:30** Pecado original.  
**22:00** C.S.I. Las Vegas. *Grissom contra el volcán*.  
**23:00** CSI Miami. *Doble tapadera*.  
**01:00** Crónicas marciales. Javier Sardarekin.  
**02:20** Informativos Telecinco.  
**02:45** Infocomerciales.  
**04:45** Madrugada de cine.

**Astean GOITBn**

**Astelehena, 4**



'Harmailatik' | 21:30

**Asteburuko kirol-ekintzen errepasoa**

Asteburuan jokaturako partiduen gainean jardungo du Julen Iriondo kazetariak. Izandako partidu nabarmenenak berreskuratuko dituzte GOITBn.

**Martitzena, 5**



Saio berezia | 21:00

**Hauteskundeak berbaigai hiru aditurekin**

Gorka Etxabek zuzenduta hiru adituk apirilaren 17ko hauteskundearen gainean jardungo dute GOITBko platoan. Gonbidatuak: Mikel Irizar, Urko Lopez eta Xabier Letona.

**Eguaztena, 6**



'Sherezade' | 21:30, 23:15

**Marrazki bizidunak txikiendako**

*Sherezade* marrazki bizidunen kapitulu berriak emango dituzte etxeko txikienen gozamenerako. Bi ordu-tegitan ikusteko aukera egongo da gainera.

**Eguena, 7**



'Behazulo' | 21:30, 22:30

**Aktualitateari lotutako erreportajeak**

Goiatz Arana kazetariak aurkeztzen duen *Behazulo* saioan, besteak beste, egunerokotasunari lotutako erreportajeak eta ekitaldi agenda zabalaz jasotzeko aukera izango duzue.

**Egubakoitza, 8**



'Ilunpean' | 21:00, 22:45

**Javier Retegiri elkarrizketa egingo diote**

Oihana Elortza kazetariak Javier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektoreari elkarrizketa zabalda egingo dio egubakoitz gauean *Ilunpean* saioan.



## Hamarrekoa

MIKEL GARAIZABAL | ENOLOGOA ETA SOMMELIERRA

### "Ardoa da gizakiak bezala, oso-oso gutxi dute ondo zahartzeko ahalmena"

Ubane Madera

**1. Ardoak zenbat eta urte gehiago, hobe. Egia?** Mito faltsua da. Ardo oso-oso gutxi dute zahartzeko ahalmena. Gainera, osasunarendako askoz hobeak dira ardo beltz gazteak. Baita kolore, lurrin eta zapore aldetik ere. Zenbat Sofia Loren mantentzen dira 70 urterekin ondo? Ala zenbat Harrison Ford?

**2. Non gordetzen da hobeto: egurrezko barrieta ala metalezkoetan?** Ondoan, sabelean. Ardo edateko da.

**3. Ardoari arrautzak botaz gero, ardo-tortilla? Ez.** Upelategi batzuek oraindik erabiltzen dute arrautzaren zuruingoa ardo garbitzeko. Baina orain atera egin dute arrautzaren albumina (ardo garbitzeko proteina) eta gaur egun merkatuan dago. Dena dela, askotan zuringoaren erabilera propaganda izaten da.

**4. Erreserba handi bat kalimotxo egiteko erabil-tzea...** Ez da bekatua. Baina kalimotxo askoz ere hobe izango da urteko ardoare-

kin, bestearekin baino. Dena den, niretako pena handia da ardo on bat freskagarri batekin nahastea. Begira, nik beste galdera bat botako nuke: zer esango luke kubatar batek 7 urteko ronari kola freskagarria nahastuz gero?

**5. Araban eta Bizkaiaren txakolina eginez gero, jatorrizko deitura du. Gipuzkoan, Getarian, Zarautzen eta Aian, ere bai; baina Arrasateko Kataidekoak ez. Bidezkoa da?** Ez. Baina, uste dut, ardoaren lege berriarekin Kataide txakolina aratuta geratuko dela. Hemendik urte batzuetara txakolin jatorri deitura guztiak batu egin beharko lirake, hala, indar handiago izango lukete saltzeko.

**6. Oso ardo ona oparitu didate eta etxean ez dakit non gorde.** Leku ilunean, bibrazio barik (mikrouhinetik, hozkailuetatik... urrutik), %70eko hezetasunean, eta botila etzanda, kortxo bustitzeko.

**7. Ardo batek ona izateko behar du...** Ardo batek ez badu ezer esaten, hilda dago. Ardo batek berba egin behar du, inpresioak eman behar ditu, baina, modu orekatuan. Orkestra bat bezala izan behar du.



MONIKA BELASTEGI

Elorriokoa da eta han bizi da, pozik, esan digunez. Orain arte, ez du aspertzeko asti handirik izan: Ostalaritza eta Turismoa, Enologia eta Mahasti Zaintza eta Sommelier ikasi ditu gizonak. Irakaslea da, Gamarrako ostalaritza eskolan; Mikel Irizarri-eta txakolina egiten die (Mendraga), liburuak idazten ditu (EHko ardoak-ek saria du, munduan didaktikoena izatearren), webgunea lantzen dabil...

**8. Edan duzun ardorik garestiena?** Ia 600 euroko Pin-gus bat (Estatukoa).

**9. Laguna maitemintzeko...** Apar dun ardo, burbui-lek magia ematen diote.

**10. Eta gu geu mozkortzeko?** Pata-rrak-eta. Ardo onak ez du mozkortzen. (Barre). Nik propaganda egin behar dut neurriko ardo kontsumoren alde.



Biharamuna

Edu Mendibil

### Lehendakari Operazioa

**Z**ein aspergarriak diren hauteskunde kanpainak! Ez dut esango garai batean megafonoarekin kalez kale mezu zaratsuak igortzen ibiltzen ziren autoak faltan botatzen ditudanik, baina gaurkoa ere aspergarria egiten zait. Futbole-an bezala, marketingak agintzen du neurri batean politikan ere, eta mitinek, adierazpenek, inketek, esloganek (erotiko-politikoak **Ibarretxerena: Elkarrekin egingo dugu**) eta abarrek hotz lagatzen naute. Sikiera, aurtengo egindako inketak sinesgarriagoak gertatuko zaizkit. Gure aitari deitu zioten zapatuan, boto-historiala eta A-17rako boto intentzioaren gainean galdezka. Nahiko nota txarrak eman zizkien aitak gure politikariei. Ados berarekin.

Edozein modutan, kanpaina bizitze aldera-edo, *reality-txouak* modan diren honetan, zergatik ez dute estilo horretako saio bat egiten? Hautagai guztiak, aukera guztiak, **Ajuria Enea** birtualean sartu eta ikusleek erabaki dezatela gustukoena. Botoa ematera joan beharrean SMS mezuen bidez egingo genuke aukeraketa.

Horrez gain, **San Gilen** setzako pijamak, **Madrazoren** etxeko lanetarako abilezia, **Lopez**en sies-tak, **Ezenaroren firin-farana**, **Ibarretxeren fitnessa** edota **Ote-giren** mus hordagoekin gozatzeko baliagarria izan liteke. Norbait ideiarekin interesatuta egonez gero, horra hor saioarendako izen posibleak: *Anaia Handia: Madril; Lehendakari, el conquistador del fin del mundo* edota *Ajuria Enea, la casa de tu vida*.

Aldaketarako denbora da



Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25  
Kale barria 18 • OÑATI • 943 71 60 74